

JASANGARRITASUN TXOSTENA MATERIALITASUN BIKOITZA

2024 ESG



ENVIRONMENTAL



SOCIAL



GOVERNANCE



AURKIBIDEA

01. Gure Jasagarritasun Txostena	3	Petronor zenbakietan	22
02. Nortasuna eta negozio-eredua	4	2024ko Jasagarritasun Plana	24
Nor garen	4	2024ko Jasagarritasun Planaren betearazpena	24
Euskal industrian dugun zeregina	5	04. Jasagarritasunarekin dugun konpromisoa	28
Jasagarritasunari buruz dugun ikuspegia	5	Ingurumena	28
Gure negozio-eredua eta balio-katea	6	Klima-aldaketa eta energia	28
Materialtasun bikoitzaren azterketa	7	Kutsadura	39
Geure interes-taldeen dugun komunikazioa	17	Alderdi ez-materialak	42
03. Ikuspegi estrategikoa eta testuingurua	19	Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra	44
Deskarbonizatutako findegia helburu	19	Pertsonak	48
Deskarbonizaziorako dugun ibilbide-orria	21	Gure langileak	48
2024ko gertaera nagusiak	22	Eraginpeko erkidegoak	52
		Gobernantza	54



01 | Gure Jasangarritasun Txostena

Petronorren, Jasangarritasun Txosten hau egiten dugu borondatez, Jasangarritasunari buruzko Informaziorako Arau Europarretan (JIAE) eta nondik norakoen berri emateko jarduera onenetan xedatutakoaren arabera. Txosten honetan, Petronorren beraren eragiketak eta bere partaidetzapeko sozietateek ALBA Emission Free Energyren bidez garatutako jarduerak azaltzen dira. Holding-sozietate horrek finketaren negozio tradizionaletik kanpo karbono gutxiko proiektuak sustatzea dauka helburu, eta horretarako, honako ekimen hauek hartzen ditu kontuan: hidrogenoa, e-fuelak, ekonomia zirkularra eta beste irtenbide jasagarri batzuk. Txosten honetan agertzen den informazioa 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra doan epealdikoa da.

Hain zuzen ere, 2024ko ekitaldiaren amaieran eratuta zeuden sozietateak hartu dira kontuan, eta, haien artean, honako hauexek nabarmentzen dira: **BASQUE HYDROGEN, BAY OF BISCAY HYDROGEN, SYNKEDIA BISCAY AIE, BISCAY PYROLYTIC ECOFUELS eta BISCAY ECO AGGREGATES.**

Petronorrek borondatez argitaratzen du txosten hau, bere interes-taldeekin hartutako konpromisoaren eta gardentasunaren adierazgarri. Jasangarritasunari buruzko informazioaren berri emateko prozesua arautzen duten eskakizunak betetzeko asmoz, nabarmendu egin beharra dago Petronorren informazioa modu bateratuan argitaratzen dela Repsol SAko Informazio Ez Finantzarioaren eta Jasangarritasunari buruzko Informazioaren Egoeran, Petronor bertako sozietate filiala dela kontuan hartuta. Egoera hori, hain zuzen ere, honako hauexen arabera prestatu da: 11/2018 Legea; 2023/2772 Araudi Eskuordetua (EB), jasangarritasunari buruzko informazioa aurkezteko arauen arloan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentaraua osatzen duena; eta Taxonomia Europarrari buruzko arauak (2020/852 Araudia (EB) eta Batzordearen 2021/2139 eta 2021/2178 Araudi Eskuordetuak, 2022/1214, 2023/2485 eta 2023/2486 Araudi Eskuordetuen (EB) bidez aldatutako bertsioan).

Txosten honetan, Petronorren beraren eragiketei buruzko informazioa azaltzen da, baita bere balio-kateari buruzko aipamenak ere.



02 | Nortasuna eta negozio-eredua



Nor garen

Enpresa industrial energetikoa gara, eta oso-oso sustraituta gaude Bizkaiko lurraldean.

Findegi moduan jaio ginen arren, egokitzeko dugun gaitasunaren eta gizartearen premiekin ditugun konpromisoaren ondorioz, gaur egun energia anitzeko enpresa bihurtzeko prozesuan gaude murgilduta, ekonomia zirkularreko HUBa izan nahian.


Bilakaera etengabe bilatzen duen negozio-ereduaren bidez, konpromisoa dugu jarduera ekonomikoaren bultzadarekin eta gure ingurune ko kalitateko enpleguaren sorrerarekin.

BALIO NAGUSIAK

SEGURTASUNA : ERAGINKORTASUNA : BERRIKUNTZA : JASANGARRITASUNA



Repsolen (%85,98) eta Kutxabanken (%14,02) partaidetzapeko enpresa gara. 1.000 lagunek baino gehiagok Petronorreko langile-talde zuzena osatzen dugu, eta 6.000 lagunek baino gehiagok gurekin lan egiten dute beste enpresa batzuen bidez. Izan ere, enpresa horiekin lan egiten dugu, eta, egunero-egunero, euren esperientzia nahiz jakintza eskaintzen dizkigute konpainiaren garapenari eta jardunbideari begira.



Euskal industrian dugun zeregina

Euskal ekonomia eta industria sustatzen dituen enpresa gara, eta sustraiak ditugu Bizkaiko lurraldean, Muskizko, Abanto-Zierbenako eta Zierbenako udalerrietan, hain zuzen ere, gure eragiketa gehienak bertan garatzen ditugu-eta. Gure jatorria harro egoteko modukoa da, eta gure inguruko garapen ekonomikoaren bila gabiltza beti. Urtero, 450 euskal enpresarekin baino gehiagorekin kontratatzen dugu batez beste, eta gure fakturazio metatua 125 milioi eurokoa da.

Zenbait proiektuen bidez, Euskadi jarri nahi dugu Europako berrikuntza energetikoaren mapan, eta, proiektu horien artean, Hidrogenoaren Euskal Igarobidea nabarmentzen da.

Auzokide onak izatea gure funtsezko balioen parte da. Hori dela eta, tokiko talentuen aldeko apustua egiten dugu, enplegu kualifikatu eta egonkorren sustapenaren bidez.

Jasangarritasunari buruz dugun ikuspegia

Petronorren, garapen jasangarria sustatzen dugu, pertsonen funtsezko eskubideak gauzatzean ezinbestekoa den eta gero eta handiagoa den energia-eskariari aurre egiteko ahaleginean.

Gure asmoa eragin onak (esate baterako, enpleguaren sorrera, berrikuntza teknologikoa eta tokian tokiko garapen ekonomikoaren sustapena) areagotzea eta txarrak gutxitzea da, baina, batez ere, geure balio-katean jokabide etiko eta gardenaren bitartez isuriekin zein baliabideen erabilerarekin lotuta daudenak. Horretarako, indarreko araudia ez ezik, nazioarteko estandar nagusiak ere betetzea daukagu helburu.

Hori guztia kontuan hartuta, gure jasangarritasun-ereduak alderdi etikoak, ingurumenekoak eta sozialak kontuan hartzen ditu erabaki-prozesuetan, eta, horretarako, etengabeko komunikazioa dugu geure interes-talde nagusiekin. Entzunaldi aktibo horri esker, haien aurreikuspenak antzeman eta erantzuna ematen diegu nazioarteko estandarrekin bat datozen politika zein konpromiso orokorren bidez, geure lana garatzen dugun berariazko erkidego eta inguruneetara egokitze asmoz.

2015. urtetik, jasangarritasuna ulertzeko modu hori urtero Petronorren bertan gauatzeko asmoz, geure **Jasangarritasun Plana** egiten dugu, eta gure konpromisoak gure testuinguruarekin zein urteko lehentasunekin bat datozen ekingintza zehatz bihurtzen dira.




450	:	125 M€
ENPRESA	:	FAKTURATUTA

Gure negozio-eredua eta balio-katea

Petronorren, hornikuntza energetikoa bermatzeko funtsezko jarduera industrialak garatzen dugu, eta, aldi berean, geure eraldaketa-prozesuan egiten dugu aurrera. Gure negozioa Europako hegoaldean nabarientakoa den findegiko eragiketa-aren inguruan dago egituratuta, Bizkaiko lurraldean dago kokatuta eta, bertatik, honako sektore estrategiko hauentzat funtsezkoak diren era askotako produktu energetiko eta petrokimikoak ekoizten ditugu: mugikortasuna, industria edo eraikuntza.

2024an, gure jardueran, eragiketen eraginkortasuna eta bektore energetiko berrien sendotasuna izan dira nagusi. 9,1 milioi tonako ekoizpena lortu dugu. Bertan, gasolioak (%47) eta gasolinak (%19) pisu nabaria izan dute; eta, ondoren, kokeak (%9), naftak (%8) eta beste produktu batzuk; esate baterako, GLP, propilenoa, kerosenoa, asfaltoak eta industria kimikoarentzako osagaiak. Aniztasun horri esker, merkatuko hainbat eskariri erantzuten diegu, eta, aldi berean, iragaitza energetikoarekin lotutako aukera berriak arakatzen ditugu.

Gure negozio-ereduak Bilboko portuaren bitartez inportatzen dugun petrolioak du abiapuntu, gure itsas terminala bertan dagoelako kokatuta. Bertatik, lehen-gaiak findegira garraiatzen dira poliduktuaren bidez, eta transformazio-prozesuari ematen zaio hasiera. Hona hemen gure jardueran garatzen ditugun faseak: hidrokarburoak jasotzea, distilatzea, tratatzea eta banatzea eta produktua biltegi-giratzea, nahastea, hidrotratamendua ematea eta hobetzea. Prozesu hori geure azpiegiturretan garatzen dugu; esate baterako, baterako sorkuntzarako lantegia, uren araztegia, hobekuntza teknologikorako unitateak eta garapeneko aktiboak. Haien artean, gainera, gure hidrogeno-ekosistema nabarmentzen da.



Azken produktuak merkatu nazionalen nahiz nazioartekoan merkaturatzen ditugu, itsasontzien, oliobideen, zisterna-kamioien eta zerbitzuguneen sarearen bitartez. Beraz, mugikortasuna eta jarduera ekonomikoa bultzatzen ditugu zuzenean. Balio-kate horretan, prozesu industrialak ez ezik, harreman sendoak ere garatzen ditugu funtsezko eragileekin; esate baterako, hornitzaileak, administrazio publikoak, inbertsiogileak, langileak, sindikatuak eta gure inguruneko beste eragile sozial eta ekonomiko batzuk.

Gaur egungo eragiketak ez ezik, deskarbonizazioarekin, ekonomia zirkularrarekin eta berrikuntza teknologikoarekin lotutako negozio-lerro berriak ere garatzen ari gara. Bilakaera hori berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen dituen eredu energetiko eraginkor eta erresilienteagoarekin dugun konpromisoaren adierazgarri da, eta bat dator Repsol Taldearen jasangarritasunaren helburuekin nahiz gizartearen eskaerekin.

Gure arriskuen kudeaketa

Testuinguru horretan, funtsezkoa da arriskuak eraginkortasunez kudeatzea, gure eragiketen jarraitasuna eta jasangarritasunari buruzko informazioaren sinesgarritasuna bermatzeko. Horretarako, arriskuen kudeaketarako eta barruko kontrolerako sistema bateratua daukagu, gure eragiketak hartzen ditu kontuan eta balio-kate osora hedatzen da. Sistema hori bat dator Repsol Taldearen ereduarekin, eta behar besteko prozesu guztiak hartzen ditu kontuan, zabalitzen dugun informazioaren fidagarritasuna eta funtsa ziurtatzeko.

Arriskuak antzemateko eta ebaluatzeko darabilgun ikuspegia eraginaren tamaina eta gertatzeko daukan aukera baloratzen dituen metodologian dago oinarrituta. Horri esker, arrisku nabarienei ematen diegu lehentasuna. Antzemandako arrisku nagusien artean, honako arlo hauetakoak nabarmentzen dira: klima-aldaketa, arauen bilakaera, zibersegurtasuna, ospe ona eta pertsonen segurtasuna. Horretarako guztirako, berriazko murrizketa-estrategiak ezarri dira, baita barruko kontrolak eta jarraipenerako neurriak ere.

Era berean, ebaluazio horietako emaitzak aldian-aldian jakinarazten zaizkie administrazioari, zuzendaritzako eta ikuskaritzako organoei, erabaki estrategikoetan arriskuen azterketa hori kontuan hartu dezaten.



MATERIALTASUN BIKOITZA

IKUSPEGI
FINANTZARIOA

ERAGINAREN
IKUSPEGIA

Materialtasun bikoitzaren azterketa

Petronorren, geure eragiketen eta balio-katearen materialtasun bikoitza izan dugu aztergai, Jasangarritasunari buruzko Informaziorako Arau Europarretan (JIAE) zehaztutako metodologiaren arabera. Azterketa horrek ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren (IGG) arloko eraginak, arriskuak eta aukerak (aurretik, EAAk) antzematea, ebaluatzea eta lehenestea dauka helburu. EEA horiek JIAE-ek proposatutako IGG gaien eta azpigiaren inguruan antolatzen eta sailkatzen dira, baita bi azpigi gehigarriaren inguruan ere.

Materialtasun bikoitzaren ebaluazioan, gai eta azpigi horiek aztertzen dira bi ikuspegitatik: ikuspegi finantzarioa, bertan ingurunean zein testuinguruan dauden arriskuak nahiz aukerak aztertzen direla kontuan hartuta, Petronorren emaitza ekonomikoetan izan dezaketelako eragina; eta eraginaren ikuspegia, bertan Petronorren beraren jarduerak eta balio-kateak pertsonetan nahiz ingurumenean izan ditzaketen eraginak aztertzen direla kontuan hartuta. Azterketa horren testuinguruan, jasangarritasunaren gai bat materializat hartzen da, eraginaren ikuspegitik, ikuspegi finantzariotik edo bietatik materiala bada.

MATERIALTASUN BIKOITZAREN EBALUAZIOA

FASES HAUETAN GARATU DA:



1. FASEA

Enpresaren barruko eta kanpoko testuinguruaren azterketa, balio-katea eta interes-taldeak

2. FASEA

Materialak izan daitezkeen eraginen, arriskuen eta aukeren zehaztapena

3. FASEA

Materialak izan daitezkeen eraginen, arriskuen eta aukeren ebaluazioa

4. FASEA

Emaitzen aurkezpena

1. FASEA:

Enpresaren barruko eta kanpoko testuinguruaren azterketa, balio-katea eta interes-taldeak

Fase honek Petronorren testuingurua eta eragiketak ulertzea eta azaltzea dauka helburu. Horretarako, barruko azterketa egin dugunez, Petronorren jardueren ulerkuntza zein inplikazioak berrikusi ahal izan ditugu. Era berean, kanpoko azterketa ere egin dugunez, honako haxe ere aztertu ahal izan dugu: sektoreko azken albisteak, lehiakideak, egunkariak, ezarri beharreko arauak, preskriptoreek eta analistek IGGren arloan dituzten aurreikuspenak eta jasangarritasunaren arloko esparruak nahiz ekimenak, besteak beste. Horretarako, geure balio-katea azaldu dugu, eta, bertan, uretan gora nahiz uretan behera gure ekoizpen-prozesuko balio-katean esku hartzen duten negozio-lerroak, jarduerak, bazkide komertzialak eta interes-taldeak bereizi eta zehaztu ditugu. Azterketa horri esker, lehenengo hurbilketa egin dugu hurrengo fasean azalduko diren EAAetara, baita balio-kateko mailetara eta gertatzen direneko negozio-lerroetara ere.

2. FASEA:

Materialak izan daitezkeen eraginen, arriskuen eta aukeren zehaztapena

Fase honetan, azalduko testuinguruaren azterketan zehaztutako emaitzetatik eta aurkikuntzetatik abiatuta, gero ebaluatuko diren eraginen, arriskuen eta aukeren zerrenda egin dugu. Kasuan kasuko gaian edo azpigaian antzemandako EAA bakoitzerako, honako haxe azaldu da: balio-kateko mailak eta gertatzen direneko negozio-lerroa edo lerroak, baita batez ere haien eraginpean

edo bertan inplikaturik dauden interes-taldeak ere. Eraginak sailkatzeko orduan, onak edo txarrak, oraingoak edo ustezkoak diren hartu da kontuan, eta EAA guztietarako epealdiak zehaztu dira. Horrez gain, eraginpean dauden edo egon daitezkeen interes-taldeen interesak, premiak eta ikuspuntuak integratuta daudela ziurtatzeko, tokiko erkidegoko ordezkariak eta langileei entzun eta haiekin hitz egin dugu, eta, horren arabera, zerrendan erantsi diren eraginak antzeman dira, gero ebaluatu ahal izateko. Eraginak JIAE-etan proposatutako gaien eta azpigaiei inguruan sailkatu dira eta, horrez gain, zibersegurtasunaren nahiz berrikuntzaren gaien inguruan ere bai. Izan ere, nahiz eta arau horietan aurreikusten ez diren, erantsi egin dira, gure jardueretarako eta negozioarako dutelako garrantzi berezia.

3. FASEA:

Materialak izan daitezkeen eraginen, arriskuen eta aukeren ebaluazioa

Aurreko fasean antzemandako EAAk ebaluatu ditugu. Horretarako, honako haxe egindako ebaluazioak integratu dira: Petronorreko arlo adituak (barruko kontrola, sail finantzarioa, prozesuak, ingurumena eta harreman instituzionalak, besteak beste), arloko hirugarren aditu independentea, konpainiako zenbait interes-arlotako ordezkariak (honako haxe egin dako elkarriketen bidez: Muskizko, Zierbenako eta Abanto-Zierbanako udalak, Muskizko Toki Garapenerako Agentzia, Pobeñako Hilario Cruz Elkarteak, Basque Ecodesign Center, Somorrostroko Prestakuntza Zentroa, Kutxabank, Repsol, Bilboko portua eta langileen laginaren bidez egindako focus groupa), egunkarien azterketetako emaitzak, Repsol Taldearen materialtasunak, sektoreko enpresak eta jasangarritasunaren analista nagusiek gai bakoitzari emandako garrantzia.

- Eraginaren ebaluazioan, lehenengo eta behin, eskala ebaluatu da 1etik 5erako tartearen arabera, horren bidez eragina zeinen larria eta onuragarria den edo izan litekeen adierazten dela kontuan hartuta. Eskala baloratzeko, lehen azalduetako balorazio guztiak hartu dira kontuan. Ondoren, 1etik 5erako tartearen arabera ere baloratu dira honako aldagai hauek: halabeharrezkotasuna (eragina txarra izanez gero, eraginaren aurretiazko egoerara itzultzea zeinen zaila izango litzatekeen eta nolako ahalegina egin beharko litzatekeen neurtzen du), probabilitatea (zer neurritan gertatu litezkeen ustezko eraginak neurtzen du) eta irismena (eraginpean dauden edo egon litezkeen pertsonen/biztanleen kopurua edo arloa zein zen neurtzen du). Langileek eurek azken hiru aldagai horiek ebaluatu dituzte langileen gaineko eraginetarako; ingurumen-arloak, ingurumenaren gaineko eraginetarako; sail finantzarioak, zibersegurtasunaren, berrikuntzaren eta gobernu korporatiboaren eraginetarako; eta hirugarren aditu independenteak, gainerako azpigaiei eraginetarako.
- Arriskuak eta aukerak ebaluatzeko, arrisku eta aukera bakoitzaren tamaina ebaluatu dugu, 1etik 5erako tartearen arabera arrisku edo aukera bakoitzak Petronorren nolako eragin finantzarioa izan dezakeen neurtzeko; baita probabilitatea ere, arrisku edo aukera bakoitza gauzatu daitekeen ala ez neurtzeko. Barruko Kontrolerako Sailak eta Sail Finantzarioak egin dute ebaluazio hori.

Azkenik, EAAen materialtasuna zehazteko, materialtasunaren atalasea azaldu dugu, hau da, EAAk Petronorrentzat zer puntuaziotatik aurrera diren materialak. Horretarako, 2024ko ekitaldian materialtasun bikoitzari buruz egin dugun azterketan, 2,5eko materialtasun-atalasea zehaztu dugu.

4. FASEA: Emaizten aurkezpena

Horrela, era bateko eta besteko gaietan eta azpigaiekin sailkatutako eragin, arrisku eta aukera bakoitzaren materialtasuna ebaluatu da. Hartara, osagai dituzten EAAk dira gai eta azpigai bakoitzaren materialtasuna zehazten dutenak. Azpigai eta gai bakoitzaren eraginaren materialtasunaren balioa bakoitzaren barruan gertatzen den eragin handiagoaren arabera zehazten da. Materialtasun finantzarioari dagokionez, kasuan kasuko azpigaian edo gaian sortzen den tamaina handieneko arriskuzaren edo aukeraren arabera zehazten da bere balioa. Horiek horrela, ebaluazio-sistema horrek ziurtatu egiten du azpigai bati emandako puntuazioak behar egiten ez duela, ez-materialak diren hainbat eragin, arrisku eta aukera osagai badiu ere. 29 eragin material, 5 arrisku material eta 7 aukera material lortu dira.

Segurtasun, Ingurumen eta Kalitateko Zuzendaritzak, Zuzendaritza Nagusiak eta CEOren ondokoak materialtasunaren azterketako emaitzak ebaluatu dituzte.



Eragin materialak

Hona hemen eragin materialen laburpena, gaiaren eta azpigaiaren arabera sailkatuta eta honako hauxe xehetasunez adierazita: onak ala txarrak diren, haien eragina berehalakoa edo ustezkoa den eta balio-kateko zer sekziotan duten eragin zuzena.

1. taula. Eragin materialak.

ESG	Gaiak	Azpigaiak	Balio-katea	Eraginak	Ona / Txarra	Oraingoa / Ustezkoa
E	Klima-aldaketa	Klima-aldaketaren murrizketa	Gure eragiketak, uretan gora, uretan behera	Beroketa globala sustatzen duten 1., 2. eta 3. irismenetako berotegi-efektuko gasak isurtzea	Txarra	Oraingoa
			Gure eragiketak, uretan gora, uretan behera	Munduak erregai fosilekin duen menpetasuna sustatzea eta karbono handiko ekonomia betikotzea	Txarra	Oraingoa
			Gure eragiketak	Ekonomia deskarbonizatzen laguntzea. Horretarako, hidrogeno berdearen sorkuntzarako proiektuak garatzea eta ekimen sektorialak bultzatzea; esate baterako, Hidrogenoaren Euskal Igarobidea	Ona	Oraingoa
			Gure eragiketak	Iragaitza energetikoa sustatzea. Horretarako, jatorri biologikoko lehengaiak erabiltzea eta prozesuak deskarbonizatzea.	Ona	Oraingoa
	Kutsadura	Energia	Gure eragiketak	Baliabide ez-berriztagarriak agortzeko prozesua sustatzea, energia sortzeko orduan	Txarra	Oraingoa
		Airearen kutsadura	Uretan gora, uretan behera	Ingurunea kutsatzea eta airearen kalitateak txarrera egitea, gure eragiketetan sortutako substantzia kutsagarriak isurtzen direlako	Txarra	Oraingoa
			Gure eragiketak	Inguruneko erkidegoetan eragina edukitzea lantegiko jardueraren ondorioz sortutako hots eta usaimen kutsaduragatik	Txarra	Oraingoa

ESG	Gaiak	Azpigaiak	Balio-katea	Eraginak	Ona / Txarra	Oraingoa / Ustezkoa
E	Ekonomia zirkularra	Baliabideen sarrerak, baliabideen erabilera barne	Gure eragiketak, uretan gora, uretan behera	Maila globalean eskuragarri dauden baliabide naturalen eta ez-berriztagarrien erreserbak murriztea, lehengaiak erauzten direlako gero merkaturatu ahal izateko	Txarra	Oraingoa
			Gure eragiketak	Iragaitza energetikoa sustatzea. Horretarako, jatorri biologikoko lehengaiak erabiltzea eta prozesuak deskarbonizatzea	Ona	Oraingoa
			Gure eragiketak	<i>Estatus quo</i> aldatzen laguntzea, ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera igarotzeko. Horretarako, baliabideen eraginkortasuna zein bizitza teknika handitzea eta teknologia zirkularrak garatzea	Ona	Oraingoa
			Gure eragiketak	Ekonomia zirkularra sustatzen laguntzea. Horretarako, irteerako baliabideen bitartez ekoagregakinak ekoizteko lantegia proiektatzea	Ona	Oraingoa
		Produktu eta zerbitzuekin lotutako baliabideen irteerak	Gure eragiketak	Laneko segurtasunik eza sortzea borondatezkoak ez diren bajengatik, antolakuntza-aldaketengatik eta negozio-ereduaren etorkizunaren inguruko ziurgabetasunagatik	Txarra	Oraingoa
			Gure eragiketak	Familia eta lana bateragarri egiteko neurrien ezarpena nahikoa edo egokia ez izatea eta, horren ondorioz, langileen lanaren zein bizitzaren arteko oreka egokia ez lortzea	Txarra	Ustezkoa
S	Gure langileak	Lan-baldintzak	Gure eragiketak	Laneko segurtasunik eza sortzea borondatezkoak ez diren bajengatik, antolakuntza-aldaketengatik eta negozio-ereduaren etorkizunaren inguruko ziurgabetasunagatik	Txarra	Oraingoa
			Gure eragiketak	Soldata egokiak eta lehiakorrak eskaintzen dituen kalitateko enplegua sortzea Petronorrek lan egiten duen lekuetan	Ona	Oraingoa
		Guztientzako tratua eta aukera berdintasuna	Gure eragiketak	Talentua trebatzea eta garatzea. Horretarako, prestakuntza ematea eta trebetasun lehiakorrak eskuratzea	Ona	Oraingoa
			Gure eragiketak	Gazteen enplegarritasuna eta inklusioa hobetzea gazteentzako talentu-programaren bidez	Ona	Oraingoa
	Balio-kateko langileak	Lan-baldintzak	Uretan gora, uretan behera	Tokiko eta sektoreko ekonomia sustatzeko gaitasuna edukitzea, elkarrentzat onuragarriak diren enpresa hornitzaileentzat eta zerbitzu-enpresentzat bideragarritasun-ekosistema sortzeko eta balio-katean eragin ekonomikoa zein zeharkako enplegua biderkatzeko	Ona	Oraingoa
			Uretan gora, uretan behera	Langileen osasun mental eta fisikoan eragin txarra duten laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak gertatzea	Txarra	Oraingoa

ESG	Gaiak	Azpigaiak	Balio-katea	Eraginak	Ona / Txarra	Oraingoa / Ustezkoa
S	Balio-kateko langileak	Beste lan-eskubide batzuk	Uretan gora, uretan behera	Bazkide komertzial guztiek euren Jokabide Kodea euren gain hartu behar izatea eta erosketa jasangarrietarako jarduketak ezartzea, giza eta lan eskubideen errespetua sustatzeko eta lan-baldintzak hobetzeko. Azken finean, horren ondorioz, garapen soziala bultzatzea eta hornitzaileen errendimendu orokorra hobetzea	Ona	Oraingoa
	Eraginpeko giza taldeak	Giza taldeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak	Uretan gora, uretan behera	Tokiko eta sektoreko ekonomia sustatzeko gaitasuna edukitzea, elkarrentzat onuragarriak diren enpresa hornitzaileentzat eta zerbitzu-enpresentzat bideragarritasun-ekosistema sortzeko eta balio-katean eragin ekonomikoa zein zeharkako enplegua biderkatzeko	Ona	Oraingoa
			Gure eragiketak	Ingurunea kutsatzea eta airearen kalitateak txarrera egitea, gure eragiketetan sortutako substantzia kutsagarriak isurtzen direlako	Txarra	Oraingoa
			Gure eragiketak	Soldata egokiak eta lehiakorrak eskaintzen dituen kalitateko enplegua sortzea Petronorrek lan egiten duen lekuetan	Ona	Oraingoa
			Gure eragiketak	Ingurunean eragindako eragina edukitzea lantegiko jardueraren ondorioz sortutako hots eta usaimen kutsaduragatik	Txarra	Oraingoa
G	Enpresen jokabidea	Kultura korporatiboa	Gure eragiketak, uretan gora, uretan behera	Karbono gutxiko ekonomia zirkularreranzko iragaitza sustatzea ingurunean konpainietan. Horretarako, teknologiak zein jarduerak egokiak garatzea eta ekosistema zirkularra sortzea	Ona	Oraingoa
		Konpromiso politikoa eta presio-taldeen jarduerak	Gure eragiketak	Lankidetzaren publiko pribatu ireki eta gardenak bultzatzea, garapenaren helburuak eta gizarte-ongizatea lortzeko	Ona	Oraingoa
		Hornitzaileekiko harremanen kudeaketa, ordaintzeko arduketak barne	Uretan gora, uretan behera	Bazkide komertzial guztiek euren Jokabide Kodea euren gain hartu behar izatea eta erosketa jasangarrietarako jarduketak ezartzea, giza eta lan eskubideen errespetua sustatzeko eta lan-baldintzak hobetzeko. Azken finean, horren ondorioz, garapen soziala bultzatzea eta hornitzaileen errendimendu orokorra hobetzea	Ona	Oraingoa
	Erakundearen berriazkoa	Berrikuntza	Gure eragiketak	Ekonomia zirkularra sustatzen laguntzea eta, horretarako, irteerako baliabideen bitartez ekoagregakinak ekoizteko lantegia proiektatzea	Ona	Oraingoa
			Gure eragiketak	Ekonomia deskarbonizatzen laguntzea. Horretarako, hidrogeno berdearen sorkuntzarako proiektuak garatzea eta ekimen sektorialak bultzatzea; esate baterako, Hidrogenoaren Euskal Igarobidea	Ona	Oraingoa

Arrisku eta aukera materialak

Atal honetan, gure azterketaren ondorioz materialtzat hartu ditugun arriskuak eta aukerak izango ditugu hizpide. Gaiaren eta azpigiaren arabera sailkatu ditugu, honako hauxe adierazita: arriskuak edo aukerak diren, balio-kateko zer zatitan duten eragina, epealdia, mota eta fisikoak edo iragaitzakoak diren.

2. taula. Arrisku eta aukera materialak.

ESG	Gaiak	Azpigaiak	Arriskua / Aukera	Balio-katea	Zer arriskuk/aukerak izan dezake eragin ekonomikoa enpresan bertan?	Epealdia	Arrisku / Aukera mota	Arrisku fisikoa / Iragaitzako arriskua
E	Klima-aldaketa	Klima-aldaketara egokitze prozesua	Arriskua	Gure eragiketak, uretan gora, uretan behera	Hornikuntzarako eta banaketarako ibilbideak etetea edo gure aktiboetan kalteak sorraraztea muturreko eragin klimatologikoengatik	Epe ertaina	Zeharkakoa	Fisikoa
		Klima-aldaketaren murrizketa	Aukera	Gure eragiketak	Energia sortzeko negozio berriak garatzea; esate baterako, H2, bioerregaiak edo erregai sintetikoak, besteak beste, deskarbonizatzeko asmoz merkatuko joerak aldatu direlako	Epe ertaina	Diru-sarrerak	N/A
			Arriskua	Gure eragiketak	Finantzaketa-aukerak galtzea, instituzio finantzarioek industria fosilari babesik ematen ez diotelako eta bertan parte hartzen ez dutelako	Epe laburra	Finantzaketaren lorpena	Iragaitza
			Aukera	Uretan gora	Finantzaketa-iturriak lortzea baldintza abantailatsuagoe-tan, iragaitza energetikoarekin eta deskarbonizazioarekin lotutako proiektuak garatzeko	Epe ertaina	Zeharkakoa	N/A
		Energia	Aukera	Gure eragiketak	Kostuak optimizatzea, eraginkortasun energetikorako neurriak ezarri direlako	Epe ertaina	Kostuak	N/A

ESG	Gaiak	Azpigaiak	Arriskua / Aukera	Balio-katea	Zer arriskuk/aukerak izan dezake eragin ekonomikoa enpresan bertan?	Epealdia	Arrisku / Aukera mota	Arrisku fisikoa / Iragaitzako arriskua
E	Ekonomia zirkularra	Baliabideen sarre- rak, baliabideen erabilera barne	Arriskua	Gure eragiketak	Beharrezkoak diren inbertsio handiak egitea, plangintzan zehaztutako iragaitzako proiektuak abian jartzeko	Epe ertaina	Zeharkakoa	Iragaitza
		Produktu eta zerbitzuekin lotutako baliabi- deen irteerak	Aukera	Gure eragiketak	Ospe ona hobetzea, baliabideen berrerabilerarekin lotutako teknologia zirkularrak garatzeagatik	Epe ertaina	Zeharkakoa	N/A
S	Gure langileak	Lan-baldintzak	Arriskua	Gure eragiketak	Galera ekonomikoak egotea eta eraginkortasuna galtzea eragiketetan eragina duten grebengatik eta lan-gatazkengatik	Epe ertaina	Kostuak	N/A
	Eraginpe- ko giza taldeak	Giza taldeen eskubide ekono- miko, sozial eta kulturalak	Aukera	Gure eragiketak	Enpresa-jarduketa egokiak eta tokiko ekimenak sustatzea, konpainiaren lanaren garapenerako lizentzia soziala handitzeko, eragiketak errazteko eta hobeto jarduteko	Epe ertaina	Eragilea	N/A
			Arriskua	Gure eragiketak	Ospe onaren eta legearen arloko arazoak sortzea, isuriaren, kutsaduraren eta tokiko lurraldeko ingurumenaren gaineko eraginaren ondorioz, eragin kaltegarria dutelako tokiko erkidegoetan	Epe ertaina	Zeharkakoa	N/A
	Erakun- dearen bera- riazkoa	Berrikuntza	Arriskua	Gure eragiketak	I+G+b-ko proiektuen garapenarekin lotutako kostuak eta inbertsioak	Epe ertaina	Kostuak	N/A
			Aukera	Gure eragiketak	Kostuak murriztea eta teknologia berriak eskuratzea lankidetzaren publiko pribatuengatik	Epe ertaina	Kostuak	N/A
			Aukera	Gure eragiketak	Merkatu berrietara irekitzea, plan estrategikoan garatutako teknologia berrien bitartez	Epe ertaina	Kostuak	N/A

EAAen azalpena

Lehen azaldutako materialtasun bikoitzaren azterketako emaitza moduan, gizartearen, ingurumenaren eta gobernantzaren arloko eragin, arrisku eta aukera materialak (AAE) antzeman ahal izan ditugu, geure jarduera bera eta geure balio-katearena kontuan hartuta. AAE horiek gure negozio-ereduaren funtsezko arloetan agertzen dira batez ere, eta eragin zuzena dute erabaki estrategikoak hartzeko prozesuan eta, gaur egungo nahiz etorkizuneko erronken aurrean, geure jardueraren erresilientzia bermatzeko asmoz bultzatzen ditugun ekintzetan.

Petronorren errendimendu ekonomiko eta finantzarioan eragina izan dezaketen arrisku nagusiak klima-aldaketaren inguruan metatzen dira batez ere, nahiz eta beste arlo batzuetan ere eragin eta aukera nabariak antzeman diren.



Eraginak

Eraginaren materialtasunaren azterketaren bidez, sakonago aztertu nahi ditugu gure jarduerak eta balio-kateak gizartean eta ingurumenean dituzten eraginak.

Gure jardueraren eragin nagusiak klima-aldaketaren ingurukoak dira. Gure prozesuaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumenaren arloko erronka handiak sortzen dira. Haien artean, berotegi-efektuko gasen isuriak eta munduak erregai fosilen inguruan daukan menpetasunaren sustapena nabarmentzen dira.

Gure deskarbonizazio-estrategia eragiketen bikaintasunean, eraldaketa teknologikoan, energia berriztagarrien erabilera eta erregai berriztagarrien sorkuntzan bultzatzen da, klima-aldaketaren ondorioak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, Repsolek 2050ean inolako isuri garbirik ez edukitzeko daukan helburua sustatzeko.

Esparru horretan, Repsolek bost deskarbonizazio-zutabe zehaztu ditu, eta bere estrategia gidatzen dute: (1) eragiketen bikaintasuna eta portafolioaren kudeaketa; (2) sorkuntza elektriko berriztagarria; (3) erregai berriztagarri likido eta gaseosoen sorkuntza; (4) karbonoa atzitzeko, erabiltzeko eta biltegitratzeko prozesua; eta (5) bezeroentzako energia anitzeko eredua.

Lan-baldintzei dagokienez, erregai fosilei buruzko arauak gogortu direnez eta gure sektorean beste eragin-faktore batzuk agertu direnez, gure negozioaren etorkizunaren inguruko ziurgabetasuna sortu da. Hori dela eta, laneko segurtasun-falta gero eta handiagoa da gure langileen artean.

Horrez gain, gure ekoizpen-prozesua nolakoa den kontuan hartuta, eragiketak aurrez aurrekoak direlako eta jarduketa fisikoa oso handia delako, erronka handia sortzen da laneko segurtasunaren arloan eta bizitzaren zein lanaren arteko oreka egokia lortzeko moduko bateragarritasun-politiken ezarpenean.

Bestetik, industriaren berezko arriskuak kontuan hartuta, substantzia arriskutsuekiko esposizioa, makina astunen erabilera eta eragiketen baldintzak, esaterako, laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak gertatzeko aukera gehiago daude-nez, eragin zuzena daukate langileen osasun fisiko eta mentalean.

Arriskuak eta aukerak

Bi negozio-lerroetan (Business as Usual (findegia) eta deskarbonizaziorako teknologia berriak), gure eragiketan nahiz garapenean eragina duten zenbait arrisku eta aukera partekatzen ditugu.

Maila globalean, guretzat muturreko eragin klimatologikoak gure balio-kate osoa aldatu dezaketen arriskua direnez, etenaldiak gertatzen dira hornikuntzan nahiz banaketan, eta gure aktiboen kalterako ere badira.

Gure eragiketetan, antzemandako arrisku nagusiak ingurumenaren arlokoak dira, eta ospe onaren zein legearen arloko arazoak ere badaude tartean, isurien, kutsaduraren eta tokiko erkidegoetako ingurumenaren gaineko eraginen ondorioz.

Era berean, ingurumenaren arloan ditugun helburuen ondorioz, beste arrisku bati ere aurre egin behar diogu. I+G+b-ko inbertsio-kostu handiak ditugu hizpide, funtsezkoak direlako gure iragaitza energetikorako planean.

Nolanahi ere, eraldaketa horren ondorioz, zenbait aukera ere sortzen dira. Haien artean, nabarmendu egin behar dugu kostuak optimizatu egiten direla eraginkortasun energetikoari esker eta ospe onak hobera egiten duela ekonomia zirkularrekin hartu dugun konpromisoagatik. Halaber, teknologia berriak garatzean, geure negozio-lerroak ere dibertsifikatu ditugunez, merkatu berrietara hedatu gara.

Findegi moduan daukagun negozioa bakarrik aztertuz gero, finantzaketa-aukeren murrizketa da antzemandako arrisku nagusia, instituzio finantzarioek ez diotelako babesik ematen industria fosilari eta bertan parte hartzen ez dutelako.

Azkenik, deskarbonizaziorako teknologia berriei lotutako proiektuak helburu dituen negozio-lerroan, uste dugu gure ibilbide-orriaren ondorioz arlo horretan sortutako aukerak horrekin lotutako ustezko arriskuen gainetik daudela.

Energiaren sorkuntzarako negozio berriak garatzeko aukera, energia-iturri berritarako proiektuei (hidrogeno berriztagarria, erregai sintetikoak edo sorkuntza elektriko berriztagarria, adibidez) eta deskarbonizaziorako proiektuei esker finantzaketa baldintza hobeetan eskuratzeko aukera eta ospe onaren hobekuntza arrisku nagusi hau konpentsatzen duten onurak dira, besteak beste: hori guztia abian jartzeko beharrezkoak diren inbertsio handiak.

Geure interes-taldeekin dugun komunikazioa

Ezinezkoa izango litzateke gure eragin, arrisku eta aukera materialak antzematea, gure eragiketetan parte hartzen edo haien eraginpean dauden interes-taldeei entzuteko eta haiekin hitz egiteko prozesu sendorik ez bagenu.

Petronorren, guretzat funtsezkoa da geure ingurunean sortzen dugun eragina ulertzea. Hori dela eta, gure jasangarritasun-eredua sei multzo tematikoren inguruan dago egituratuta, eta ingurumenaren, gizartearen zein gobernantzaren arloko gai nabarienei ematen die lehentasuna. Geure interes-taldeekin dugun komunikazioari esker, eragin onak areagotzeko eta txarrak murrizteko aukerak antzematen ditugu, eta, urtero-urtero, gure jasangarritasun-planetan azaltzen diren ekimenetan zehazten ditugu. Ekintza-plan publiko eta garden horietan, hartutako konpromisoak agertzen direnez, badago haien aurrerakuntza-mailaren jarraipena egiterik.



Hona hemen gure interes-talde nagusiei buruzko informazio xehatua:

.....

• Hornitzaileak

Geure hornitzaileekin dugun komunikazioa etengabea da gure eragiketen egunez egunekoan. Komunikazio ona dugu, geure hornikuntza-katearen eraginkortasuna eta ingurumen, gizarte zein gobernantza arloko jasangarritasuna sustatzeko.

• Langileak eta sindikatuak

Komunikazio ona eta etengabea dugu geure langileekin eta haien sindikatuetaordezkariekin, enpresa-batzordearen eta batzorde aktiboaren bidez. Harreman hori Petrogune bezalako kanal zuzenen eta barruko partaidetzarako dinamiken bidez indartzen da. Horrez gain, materialtasun bikoitzaren azterketan bertan, isileko focus groupa egiten dugu langileen lagin batekin, haien esperientziaren bidez eragin nabariak antzemateko asmoz.

• Akziodunak eta inbertsiogileak

Komunikazio gardena dugu geure akziodunekin eta inbertsiogileekin, geure lanari eta estrategiari buruzko informazio garrantzitsua ematen diegu-eta.

• Azken edo bitarteko bezeroak

Azken eta bitarteko bezeroekin dugun komunikazioa funtsezkoa da, haien premiak eta aurreikuspenak ulertzeko orduan. Kalitate handiko produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko ahalegina egiten dugu, eta, aldi berean, ingurumeneari dugun eragina murrizten dugu.

• Gizartea, GKEak eta beste eragile sozial batzuk

Jakin badakigu zeinen garrantzitsua den gizartearekin, GKE-ekin eta beste eragile sozial batzuekin komunikatzea. Komunikazio irekia dugu haiekin, haien kezka kontuan hartzeko eta garapen jasangarria sustatzen duten ekimenetan elkarrekin lan egiteko. Materialtasun bikoitzaren azterketan bertan, talde horietako ordezkariak elkarriketa anonimoak egiten dizkiegu kanpoko zerbitzu-hornitzailearen bidez. Hori dela eta, hobeto ulertzen dugu nola ikusten dituzten gure eraginak eta aukerak.

• Administrazio publikoa, gobernuko organoak eta erakunde arautzaileak

Etengabeko komunikazio gardena daukagu administrazio publikoarekin, gobernuko organoekin eta erakunde arautzaileekin. Indarreko araudia betetzen dugu, eta jasangarritasuna bultzatzen duten politikak egiten laguntzen dugu. Materialtasun bikoitzaren azterketan, haien ikuspegiak hartu ditugu kontuan, hirugarren independenteak egindako elkarriketa anonimoen bidez.



03 | Ikuspegi estrategikoa eta testuingurua

Deskarbonizatutako findegia helburu

1972an abian jarri ginenetik, Petronorren, lotune estu-estua eduki dugu herrialdeko garapen energetiko eta industrialarekin. Hasieran, fuel-olioa ekoizten genuen, elektrizitatea sortzen zuten konpainia termikoei hornitzeko, eta, horrela, une hartako premia energetikoei erantzuten genien.

Urteen joan-etorrian, egokitzeko gaitasun handia dugula egiaztatu dugu, ingurune aldaketei hartu diegulako aurrea. Gure lehenengo eraldaketa horren adibide argia izan da. Arrakastatsua izan zen erabat, 1.850 milioi euro baino gehiago inbertitu genituelako 2008tik 2023ra eta eskuragarri zeuden teknologia onenak ezarri genituelako. Eraldaketa horri esker, fuel-olioa erabat desagertu zen gure ekoizpenetik, ingurumenaren gaineko eragin txikiagoa zeukaten erregaien sorkuntza hobetu genuen (esate baterako, gasolioa, gasolina, kerosenoa edo nafta) eta, fuel-olioaren orde, gas naturala erabiltzen hasi ginen prozesuko energia moduan. Aldaketa horren ondorioz, produktua eta bezeroak bilakatu egin ziren, eta, horrez gain, gure instalazioetako eraginkortasun energetikoak ere hobera egin zuen modu nabarian.

Gertaera gogoangarri hori aurrerakuntza esanguratsua izan zen gure prozesuen eta produktuen deskarbonizazioan, une hartan teknologiak erabat deskarbonizatu zegoen findegia irudikatzeko aukerarik ematen ez bazuen ere.

2019an, beste aurrerapauso bat eman genuen, geure bigarren eraldaketa handiari hasiera ematean, geure gain hartu genuelako 2050erako berotegi-efektuko gasen isuri garbiak desagerrarazteko konpromisoa. Ziklo berri horren ondorioz, honako haxe galdetu genion geure buruari: nolakoa da deskarbonizatutako findegia? Une horretara arte, ez zegoen erantzun argirik. Hori dela eta, zehaztea erabaki genuen, geure historian hainbatetan egin dugun bezala, eta, horretarako, teknologia zein inbertsioa izan genituen oinarri.

Ondorio moduan atera genuen deskarbonizatutako findegiak haxe izan behar zuela oinarri:

FUNTSEZKO LAU ZUTABE:

• Ekonomia zirkularra

Gure instalazioen elikagai den lehengaia aldatzea eta, petrolioaren zati adierazgarriaren ordez, hondakinak erabiltzea; esate baterako, biomasa, erabilitako olioak edo hiri-hondakinak. Horrela, hondakinak tratatzen eta balioztatzen ere laguntzen dugu, erronka sozial handietakoa dela kontuan hartuta.

• Prozesuko energiaren aldaketa

Gas naturalaren ordez, hidrogeno berriztagarria erabiltzea. Horrez gain, kontsumitzen dugun energia elektriko guztia iturri berriztagarrietatik datorrela bermatzea.

• Erregai berriztagarrien ekoizpena

Hidrogeno berriztagarriaren, bioerregai aurreratuen eta erregai sintetikoen aldeko apustua egitea, funtsezkoak direlako jasangarriagoa den mugikortasunerako.

• CO₂ atzitzea eta erabiltzea

Geure prozesuetan sortutako CO₂ atzitzea eta erregai sintetikoen ekoizpenean lehengai moduan berrerabiltzea.

Gure historiaren eta ingurunearekin dugun konpromisoaren adierazgarri, betebetean parte hartu nahi dugu klima-aldaketari aurre egiteko irtenbidean. Horregatik, 2030. urteari begira zehaztu dugun ibilbide-orri argiaren ondorioz, etorkizuneko ikuspegi hori gauzatzeko moduko proiektu zehatzak sortu ditugu.



Deskarbonizaziorako dugun ibilbide-orria

Jakin badakigu iragaitza energetikoari aurre egiteko orduan epe luzerako ikuspegia eduki beharra dagoela, baita ekintza irmo eta zehatza ere. Hori dela eta, deskarbonizaziorako ibilbide-orria diseinatu dugu 2030. urteari begira, Repsolek 2050ean inolako isuri garbirik gabeko konpainia izateko daukan konpromisoa sustatzeko.

Ibilbide-orri horretan, hiru jarduketa-lerro handi hauen inguruan egituratutako 32 proiektu estrategiko zehaztu dira: eraginkortasun energetikoa, lehendik zeuden unitateen aldaketa eta garapen industrial berriak. Horretarako inbertsioa 1.163 milioi eurokoa izango da guztira, eta, haietatik, 182 milioi lortu dira jasotako dirulaguntzen bidez.

Proiektu horiek 2024-2028an betearaziko dira, eta, epealdi horretan, apurka-apurka abian jarriko ditugu azaldutako ekimen guztiak. Izan ere, zenbait garapen-fasetan daude gaur egun.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

12 : **77M€**
PROIEKTU : INBERTITUTA

ERALDAKETA INDUSTRIALA

20 : **1.086M€**
PROIEKTU : INBERTITUTA

• Eraginkortasun energetikoa (77 milioi euro)

Petronorren, eraginkortasun energetikoa etengabeko lehentasuna da 2006. urteaz geroztik, eta berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea dauka helburu. Gaur egun ditugun instalazioak eraginkorrak izatea nahi dugunez, kontsumoak eta berotegi-efektuko gasen isuriak murrizten ditugu. Alde horretatik, 2024-2028ko epealdirako, 12 proiektu zehaztu ditugu, eta inbertsioa 77 milioi eurokoa izango da. Bertan azaldutako neurriek honako hauxe izango dute xede: elektrifikatzea, energia berreskuratzea, erregaien erabilera murriztea eta prozesu industrialetan sortutako beroa ustiatzea.

• Eraldaketa industrial (1.086 milioi euro)

Eraldaketa industrialari buruz dugun ikuspegia hurrengo zutabeetan dago egituratuta, inbertsioa 1.086 milioi eurokoa izan da guztira eta, aurreikuspenen arabera, 20 proiektu industrial egingo dira 2024tik 2028ra.

• Gaur egungo unitateen aldaketa (542 milioi euro)

Gure hasierako helburua eduki baditugun instalazioen bizitza teknikoa luzatzea da, karbono-isuri gutxiko produktu berriak ekoizteko. 2024-2028ko epealdian, findegiko unitateen aldaketarako 14 proiektu betearaziko dira, jatorri biologikoko lehengaien eta erregai berriztagarrien sorkuntzarako hondakinen bidez garatutako baterako prozesaketa handitzeko. Horrez gain, proiektuetako baten arabera, unitate berria eraikiko da, %99,5eko araztasuna daukan polimero-mailako propilenoa ekoizteko. Hartara, findegiko produktuen dibertsifikazioa indartuko da.

• Garapen industrial berriak (544 milioi euro)

Bigarrenenez, etorkizuneko ikuspegiak eta berrikuntzaren aldeko apustua eginda, proiektu industrial berritzaileak garatzen ari gara, merkatuan lehiakorrak izaten jarraitzeko eta geure sektoreko azken teknologietara bizkor-bizkor egokitzeko.

Horrela, bete-betean lan egiten dugu, Repsoli 2018koen aldean 2030erako BEGen 1., 2. zein 3. irismeneko isuri absolutuak %20 murrizteko eta 2016koen aldean 1. zein 2. irismeneko isuri tratatuak %55 gutxitzeko helburuak lortzen laguntzeko. Era berean, Repsoleko karbonoaren intentsitatearen murrizketa sustatzea ere badugu helburu.

Deskarbonizaziorako ekintzak eta proiektuak xehetasun handiagoz garatzen dira Klima Aldaketaren Arloan Ezarritako Ekintzen eta Neurrien Atalean.

2024ko gertaera nagusiak

Hidrogeno berriztagarria European

Gaslogekin eta EnBWekin sinatutako hitzarmena, bere garapena bultzatzeko.

47 M€ findegiko geldialdian

13 unitatetako 300 ekipamendu artatzea eta modernizatzea.

Propilenoko Unitate berria (2026an jarriko da abian)

Bero Ponpadun Polimero Gradua: araztasun handiagoko produktua da, merkatu petrokimikorako da egokia eta ekonomia zirkularra sustatzen du. Ekoizpena eraginkorragoa izango denez, energiaren zein uraren kontsumoa eta isuriak murriztuko dira.

5G-ko konektibotasun industrial

Repsolen eta Cellnexen proiektua, digitalizaziorako eta deskarbonizaziorako.

%100 HVO erregaia ekitaldietan

Kopako finala, BBK Live eta beste garraio jasangarri batzuk.

20 STEAM beka gazteentzat

Emakume eskatzaileen %100 izan dira onuradunak.

Petronor zenbakietan

PERTSONAK



%94

KONTRATU MUGAGABEA
DUTEN LANGILEAK

%97,3

LANALDI OSOA
DUTEN LANGILEAK

%100

PRESTAKUNTZAN PARTE
HARTU DUTEN LANGILEAK

32,4h

LAGUNeko BATEZ
BESTEKO PRESTAKUNTZA

%100

LANEKO OSASUNEKO ETA
SEGURTASUNEKO ESTALDURA

2

ISTRIPU EGON DIRA, ETA GURE
LANGILEEK EGUNAK GALDU DITUZTE

INGURUMENA

259.957 tCO₂ urteko
saihestu dira (2017–2024)

–%1,46ko murrizketa

BEGen isuri gordinetan, 2023koaren aldean

2.115.785 tCO₂

1. irismeneko BEGen isurietan

7.986.593 MWh

energia kontsumitu da guztira



ERALDAKETA INDUSTRIALA ETA INBERTSIOA

6 PROIEKTU EZARRI DIRA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAN 2024AN

3,8 M€-ko inbertsioa eta urteko 20 ktCO₂-ko murrizketa

120 MILIOI €-TIK GORA AURREIKUSI DIRA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAN (2017-2026)

70 M€ inbertitu dira (2017-2023), 120 M€ aurreikusi dira (2025-2026) eta zenbatetsitako murrizketa urteko 240 ktCO₂-tik gorakoa izan da

542 MILIOI €

14 PROIEKTUTAN, IBILBIDE-ORRIAN ZEHAZTUTAKO PROZESUAK HOBETZEKO

6 PROIEKTU INDUSTRIAL BERRI

544 MILIOI €

INBERTITU DIRA GARAPEN BERRIETAN



2024ko Jasangarritasun Plana

Garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa ez da epe luzerako ikuspegira mugatzen. 2015. urtetik, Petronorren, Jasangarritasun Plana egin eta abian jartzen dugu urtero, eta, horri esker, geure estrategia ezartzen dugu ekitaldi bakoitzeko errealitatera egokitutako ekintza zehatzen bitartez. Plan horien bidez, ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloan ditugun konpromisoak daramatzagu eragiketen arlora, eta etengabeko hobekuntzarako nahiz gardentasunerako daukagun eredia indartzen dugu.

2024ko Jasangarritasun Planari esker, gure ibilbide-orria emaitza egiaztagarri bihurtu da azken ekitaldian. Plana Repsol Taldearen Jasangarritasun Politikaren eta **Repsol Taldearen esparru estrategiko**aren arabera diseinatu da, eta gure jarduerarako garrantzitsuenak diren gaiak jorratzen dituzten sei jarduketa-ardatzen inguruan egituratu da:



Guztira, **19 ekintza** betearazi ditugu, eta, bakoitzean, helburu zehatzak, esleitutako arduradunak eta jarraipen-adierazleak zehaztu direnez, haien ezarpena ebaluatu ahal izan dugu.

2024ko Jasangarritasun Planaren betearazpena

Hona hemen 2024ko Jasangarritasun Planaren betearazpen-maila:

JARDUKETA-ARDATZA	EKINTZAK	BETEARAZITA	GARATZEN
Klima-aldaketa	5	%100	-
Ingurumena	4	%75	%25
Berrikuntza eta teknologia	4	%100	-
Eragiketa segurua	3	%100	-
Pertsonak	2	%100	-
Etika eta gardentasuna	1	-	%100
GUZTIRA ORO HAR	19	%90	%10

3. taula. Jasangarritasun Planean ingurumenaren arloan izan dugun bilakaera.

	Ekintza	Helburua	Zer lortu dugun
Klima-aldaketa	Eragiketen eraginkortasuna handitzea eta prozesuko ekipamenduen isuriak murriztea	Isuria urteko 11.200 tona murriztea	Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea, lau motorren elektrifikazioaren bidez
	Gasolioak ekoizteko prozesuak deskarbonizatzea, prozesuko isuriak murrizteko	Urteko 10.300 tona CO ₂ murriztea	Berotegi-efektuko gasen isuriak urteko 12.000 tona CO ₂ baino gehiago murriztea, urteko 10.300 tona CO ₂ murrizteko konpromisoa gainditzeko
	Beroa berreskuratzeko ekipamenduen errendimenduak hobetzea	Isuriak urteko 7 ktCO ₂ murriztea	CO ₂ -ri dagokionez, isuria 6,53 ktCO ₂ murriztea karga nominalean
	BIO produktuak erabiltzea erregaiak ekoizteko orduan, hau da, lehengai alternatiboak (hondakin plastikoak, adibidez) edo lehengai berriztagarriak darabiltzatenak	Bio jatorriko 50.000 tona erabiltzea erregaien ekoizpenean	Petronorren, bio jatorriko 202 kt osagai erabiltzea erregaien ekoizpenean
	Eraldaketarako proiektuek ingurunean dituzten arriskuen eta aukeren ebaluazioa aztertzea	2024ko abenduan azterlana amaituta edukitzea	Petronor eraldatzeko proiektuetan arrisku sozialak eta komunikazio-arriskuak kudeatzeko estrategia' azterlana garatzea, gure eraldaketa-proiektuekin lotutako inguruneko arriskuak ebaluatzeko. Horren arabera, gainera, garatzen ari diren 20 ekintzak osatutako Ekintza Plan Integratua zehaztu dugu
Ingurumena	Ekonomia zirkularra sustatzea erregaiak ekoizteko orduan	Inbertsioa betearaztea	2024an, sistema logistikoaren inbertsioa amaitu dugu. Horrez gain, biojeta ekoizteko unitatea ere jarri dugu abian, hau da, jatorri biologikoko lehengaien bidez ekoiztutako erregaia
	Uraren berreskurapena hobetzea eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergotik datorren kontsumoa murriztea	Muskizko eta Galindoko HHUAekin harremanak eta lankidetzapeko azterketarako bidea ezartzea	Geure helburuak betetzeko, zenbait bilera egin ditugu partzuergoarekin, eta bi bisitaldi ere egin ditugu bertara, etorkizuneko lankidetzetan eman ahal izango lizkiguketen ur leheneratuen kalitateari buruzko datuak biltzeko
	Inguruko ikasleekin eta boluntarioekin basoa berritzea suteak suntsitutako azaleran	500 ikasleren partaidetza ziurtatzea. Hektarea bat baso berritu da	2019ko martxoan Muskizko suteek suntsitutako 2 hektareako baso-azalera berritu dugu, eta, bertan, Muskizko bost ikastetxeetako 700 ikaslek parte hartu dute
	Erregai berriztagarrien erabilera sustatzea Petronorreko jarduerarekin lotutako garraio-zerbitzuetan	2024an hiru arrakasta-kasu lortzea	Geure helburuak bete ditugu, erregai berriztagarriak erabili ditugulako, %100 HVO, hain zuzen ere, bost ekintzatan, hau da, Athletic Clubeko zaleak Sevillako kopako finalera eramateko garraioan, Athleticen "gabarrari" lagundu zion Petronorren itsasontzian, parte-hartzaileak BBK Live jaialdira nahiz Gasteizko Azkena jaialdira eramateko garraioan eta Muskizko kontzertura joateko anezkan

Eragiketa seguruari, teknologiari eta berrikuntzari dagokienez, honako aurrerakuntza hauek izan ditugu geure Jasangarritasun Planean:

4. taula. Jasangarritasun Planean berrikuntzaren, teknologiaren eta eragiketa seguruaren arloan izan dugun bilakaera.

	Ekintza	Helburua	Zer lortu dugun
Berrikuntza eta teknologia	Deskarbonizatutako erregaiak ekoizteko demostrazio-lantegia eraikitzea	1. Proiekturako IBI lortzea. 2. Portuko partzelaren esleipen-titulua lortzea. 3. Eraikitze lizentzia lortzea eta eraikitzen hastea.	Erregai sintetikoen lantegia eta 10 MW-ko elektrolizadorea eraikitze Ingurumen Baimen Integratua (IBI), erregai sintetikoen lantegiko instalazioak eraikitzen hasteko
	Ekoagregakinak ekoizteko lantegi industrialak eraikitzea	1. Ingurumen Baimen Integratua (IBI) eta Hondakina Izateari Utzi Izana lortzea. 2. Lantegia eraikitzen hastea. 3. Bazkideekin hitzarmena sinatzea eta jarduera hau ustiatzeko sortutako sozietateko akzioak banatzea.	Ondo egin dugu aurrera eraikuntzaren aurretiko alderdi guztietan, Ingurumen Baimen Integratua zein Hondakina Izateari Utzi Izana lortu ditugu eta notarioaren aurrean formalizatu dugu
	Azpiegitura logistikoak eta mugikortasunerako hidrogenoa banatzeko azpiegiturak eraikitzea	1. Lantegi logistikorako eta HRS Abantorako baimena lortzea. 2. Lantegi logistikoa eta HRS Abanto eraikitzen hastea.	Oinarrizko ingeniariak egin dugu, obrari eman diogu hasiera lurra mugitzean eta konfiskazio teknika zehaztu dugu, ekipamenduen eta bere instalazioaren eskaintza eskatzeko
	Industria-guneko digitalizazioa bultzatzea eta, horretarako, 5G teknologia oinarritutako irtenbidea garatzea	1. 5G sarea hedatzea. 2. Gutxienez, bi erabilera-kasutan ezartzea, haietako batean komunikazio kritikoak kontuan hartuta, eta beste batzuk ikuskaritza-ibilbideetan ezartzea.	Cellnexen eta Repsolen laguntzaz, eremu industrialeko 5G komunikazio-sare pribatua abian jarri dugu eragiketetan
Eragiketa segurua	Instituzio publikoekin lan egitea suteak Petronorren beraren sistematikaren bidez itzaltzeko prestakuntzetan	Ekintza betearaztea eta prestakuntza ematea	Informazioarako eta trukearako bilera egin dugu larrialdietako instituzio publikoekin, SOS Deiaren egoitzara egindako bisitaldiaren eta bileraren bidez
	Segurtasuneko lankidetzaren ingurunea indartzea instituzio publikoekin	Simulakroa gauzatzea	Azaroan, arrakastaz egin genuen simulakro orokorra, eta, bertan, simulakroan kontuan hartutako instituzio publikoek parte hartu zuten
	Benetako suaren erabilera murriztea suteen aurkako simulakroetan	Benetako suak darabilten praktikak %50 murriztea	Benetako suak darabilten praktikak %50 murriztu ditugu

Azkenik, etikari zein gardentasunari eta gure erakundean inplikaturako pertsonen dagokienez, honako hauexek dira lortutako aurrerakuntzak:

5. taula. Jasangarritasun Planaren pertsonen arloan izan dugun bilakaera.

	Ekintza	Helburua	Zer lortu dugun
Pertsonak	STEAM bokazioak sustatzea LHko beken programaren bidez, baina, batez ere, emakumeen artean	1. 20 beka esleitzea. 2. Beken %50 baino gehiago esleitzea deialdiko eskakizunak betetzen dituzten emakumeen artean.	LHko beken programaren bidez, 20 beka esleitzea eskakizun guztiak betetzen zituzten izangaien artean. Gainera, beka eskatu dituzten emakumeen %100 izan dira onuradunak
	Jokabide mendetasun-sortzaileak prebenitzea, drogen ondorioen eta kontsumoaren arriskuen inguruan sentsibilizatzeko	Gutxienez langileen %75 prestatzea	2024an zeuden langileen %76,2k parte hartu dute aipaturako prestakuntzan
Etika eta gardentasuna	Petronorreko aholkulari-talde publikoen metodologia berrikustea, gazteen partaidetza sustatzeko asmoz	Metodologia berrikustea eta 2024an abian jartzea	Egutegia zehaztea, 2025ean metodologia berria abian jartzeko

Planaren azaldutako ekintza guztiek zuzenean sustatu dute Garapen Jasangarriko Helburuetarantzko (GJH) aurrerakuntza, eta honako hauexei eman diete lehentasuna:

- 7. GJH – Energia merkea eta ez-kutsagarria
- 8. GJH – Lan duina eta hazkuntza ekonomikoa
- 13. GJH – Klimaren aldeko ekintza

Horren osagarri, gainera:

- 6. GJH – Ur garbia eta saneamendua
- 9. GJH – Industria, berrikuntza eta azpiegitura
- 12. GJH – Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
- 17. GJH – Helburuak lortzeko aliantzak

Jasangarritasunaren arloko gobernantzari dagokionez, Petronorreko Zuzendaritza Batzordeak 2024ko Jasangarritasun Plana eta betearazpen txostena onartu ditu. Arlo bakoitzeko zuzendariak ekintzak betearaziko dituzte, eta Harreman Instituzionaletako Zuzendaritzaren laguntza jasoko dute ekimen zehatz batzuetan.

Ekimen bakoitzaren, haien eraginaren eta betearazpen-egoeraren ikuspegi xehatuagoa edukitzeko, 2024ko Jasangarritasun Planaren Betearazpenari buruzko Txostena kontsultatu ahal izango da, bertan ekitaldiaren jarraipen oso eta dokumentatua agertzen da-eta.



04 | Jasangarritasunarekin dugun konpromisoa

Ingurumena

Klima-aldaketa eta energia

Garapen jasagarriarekin konpromisoa dugunez, etengabe bilakatzen ari den enpresa garela uste dugu Petronorren.

Etengabeko eraldaketaren bidez, geure konpromisoa berresten dugu, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta geure ingurunean kalitateko enplegua sortzeko. Beti-beti, geure instalazioen etengabeko hobekuntzari ematen diogu lehen-tasuna, eta eskuragarri dauden teknika onenak (ETOak¹) ezartzen ditugu, eraginkortasuna eta jasagarritasuna bermatzeko.

Klima-aldaketara egokitzeko eta murrizteko politikak eta energia-ren arlokoak

Repsol Taldeko filiala denez, Petronorren, ingurumenaren arloko helburuekin dugun konpromisoa berresten dugu, baita taldeko Ingurumen Politika eta Jasagarritasun Politika ere. Gure ustez, printzipio horiek partekatzean, badugu gure helburu bateratuak eraginkortasun eta egokitasun handiagoz lortzerik.

Ingurumen Politika gure estrategiaren funtsezko zutabea da, eta Repsol Taldeak 2050ean inolako isuri garbirik ez edukitzeko zehaztutako helburuaren barruan dago kokatuta, Pariseko Hitzarmeneko konpromisoak kontuan hartuta. Horrez gain, ingurumena babesteko, kapital naturala kontserbatzeko eta baliabideak jasagarritasunez erabiltzeko konpromisoa ere hartu du bere gain. Gure konpromiso nagusien artean, honako hauexek nabarmentzen dira: arauak betetzea, ingurumenari buruzko indarreko arauetara atxikitzea, gure eragiketa guztietan etengabeko hobekuntza ziurtatzen duen ingurumen-kudeaketa integratua garatzea eta ingurumeneko arriskuak zein aukerak zehaztea eta kudeatzea, baita klima-aldaketaren ondorioz sortutakoak ere. Ingurumen Politikan bertan, murrizketarako eta

¹ Eskuragarri dauden teknika onenak: Europar Batasuneko sektoreko BREF agirietan aipatzen dira, eta industriako erreferentziako estandarrak zehazten dituzte.


egokitzapenerako behar besteko neurriak ere ezartzen dira, betiere, arrisku horiek nabariak badira.

Geure balioen eta ingurumenaren lehentasunaren printzipioaren arabera, behar besteko konpromisoa hartzen dugu, ingurumenaren babesaren eta eragiketetako emaitzen arteko edozein gatazka gertatuz gero, beti-beti ingurumenaren babesari lehentasuna emateko.

Jasangarritasun Politikaren bidez, konpainiak garapen jasangarrian duen ekarpena areagotu nahi dugu, gaur egungo premiek etorkizuneko belaunaldien premiak kolokan jartzen ez dituztela ziurtatzeko. Politika horretan, zenbait helburu zehazten dira, bidezko iragaitza energetikoaren sustapena, esaterako, langileengan, tokiko erkidegoetan eta, oro har, gizartean duen eragina ere kontuan hartuta. Halaber, bere eragiketa guztietan gardentasuna, balio soziala eta arauen betearazpena sustatzen dituen negozio-eredua zehazten du.

Politika horren babespean, zenbait erronka hartzen ditugu geure gain; esate baterako, berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea eta arriskuak antzematea, ebaluatzea eta kudeatzea. Horretarako, ingurumenaren nahiz gizartearen arloko kontrolerako, auditoriarako eta garapenerako sistemak ebaluatzen ditugu, energia seguru, merke eta jasangarria eskuratzeko aukera unibertsala dela bermatzeko.

Petronorreko Segurtasun, Ingurumen eta Kalitateko Zuzendaritzak Taldeko Jasangarritasun Politika eta Ingurumen Politika ezartzen direla bermatzen du.



Energiari dagokionez, 2018. urteaz geroztik, ISO 50001 araupean ziurtatutako Energiaren Kudeaketarako Sistema (EKS) dugu.

Gaur egun derrigorrezko eskakizuna bada ere, harro-harro gaude, aitzindariak izan garelako arlo horretan. Izan ere, sistema hori abian jarri genuenean, oraindik borondatezkoa zen ezartzea. Ikuspegi hori jarduera guztietan ezartzen dugu, baita findegiko pertsona guztietan ere.

Horrez gain, 2022an, kalitatea (ISO 9001), ingurumena (ISO 14001), laneko segurtasuna eta osasuna (ISO 45001) eta energia (ISO 50001) kudeatzeko sistemak ezarri genituen, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta geure eragiketa guztietan ikuspegi integratua ziurtatzeko.

Sistema horiek baino lehen, kontsumo energetikoak murrizteko planak genituen, eta KPI adierazleak zein CO₂ murrizteko berariazko helburuak hartzen zituzten kontuan.

Erresilientziaren azterketa

Taldean bertan, estrategiaren eta negozio-ereduaren erresilientzia aztertu da, Petronorreko eragiketak kontuan hartuta. Repsol Taldeak erresilientziari buruz egin duen azterketan, taldearen lau negozio-lerroak hartu dira kontuan: miaketa eta ekoizpena, industrial, bezeroa eta karbono gutxiko sorkuntza. Nabarmendu egin beharra dago gure eragiketak lerro industrialaren barruan kokatuko liratekeela. Azterketa horretan, Repsol Taldeak ebaluatu egiten du nolako gaitasuna duen sistema energetikoaren pixkanakako deskarbonizaziora egokitzeko iragaitzako zenbait egoeratan, negozio-arlo guztietako eragiketen jarraipena, lehiakortasun ekonomikoa eta garapen jasangarria ziurtatuta.

Erresilientziaren azterketa taldearen ingurumen-arriskuen azterketatik abiatzen da, eta, bertan, ondorio moduan ateratzen da klima-aldaketaen ondorioz sortutako arrisku fisikoak ez direla materialak taldearen jardueretarako eta aktiboetarako. Hori dela eta, azterketatik kanpo geratzen dira osteko xehetasunetan.

Taldearen erresilientziaren azterketak ebaluatu egiten du nolako gaitasuna duen 2030-2050ean iragaitza energetikoaren ondorioz sortutako arriskueta egokitze-ko. Azterketa hori Energiaren Nazioarteko Agentziak (ENA) zehaztutako egoeretan dago oinarrituta, eta zenbait energia-iturriren ekoizpenaren nahiz eskariaren inguruko proiektio globalak eskaintzen dituzte, ekitaldiko sendotasuna ziurtatzeko.

Negozio industrialerako kontuan hartutako eskari energetikoaren ingurunea bat dator Europar Batasuneko Itun Berdeko arauekin, baita Konpainiaren Eguneraketa Estrategikoarekin ere. 2030era arte, azterketa Repsoleko azken Eguneraketa Estrategikoan (2024ko otsaila) dago oinarrituta. Ondoren, negozioaren aldagai kritikoaren bilakaera Europar Batasuneko Itun Berdearen araberrako ENAko hiru egoeretako baldintzapean aztertuko denez, arriskuak murriztuko dira, eta ingurune-ko zenbait baldintzatarako egokitu ahal izango da taldea.

Erresilientziaren azterketako emaitzak era bateko zein besteko negozioen bilakaerari islatzen dira:

Negozio industrial: kontuan hartutako ingurune egonkorra Europako Itun Berdean eta Fit for 55 lege-sortan zehaztutakoa da. Estrategian bertan, erregai berriztagarrien proiektuetako inbertsioak hartzen dira kontuan, negozioaren balioari eusteko asmoz.

Prezioak: 2030era arte, barruko bide sendoa erabiltzen da, balio berreskuragarria kalkulatzeko delako eta aktiboen narriaduraren proba egiten delako, analisten eta agentzien erreferentzietan oinarrituta. 2030etik aurrera, prezioak modu linealean interpolatzen dira, harik eta 2040an ENAko proiektioekin bat egin arte, 2050era arte bere horretan iraungo dutela kontuan hartuta.

Ingurune energetikoa ziurgabea denez, petrolioaren, gasaren eta finketaren markinaren aldakortasunaren inguruko sentsibilitatea aztertzen da, adierazle horien aldagarritasun historikoan oinarrituta.

Horrez gain, egoera bakoitzean epe luzera beharrezkoa den kapital-esleipena zein den zenbatesten da, eta karbono gutxiko negozioetako inbertsioei ematen zaie lehentasuna. Kudeaketa finantzariarako esparru sendoaren babespean dagoen ikuspegi horrek taldearen eragiketen erresilientzia eta jasangarritasuna ziurtatzen ditu, merkatuan edo araudian gertatutako aldaketen aurrean.



Klima-aldaketaren eta energiaren arloan ezarritako ekintzak eta neurriak

Negozio industrialak eta eskariaren joeren arabera egokitzapena

Gure negozio industrialak eskariaren joeretara eta arauketetara egokitzen dira, Europan, batez ere.

Repsol Taldeak 2050ean inolako isuri garbirik gabeko konpainia izateko zehaztutako helburua sustatzeko asmoz, inbertsio estrategikoak egiten ari gara eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko proiektuetan eta teknologietan. Gaur egun, eraldaketa-prozesu bete-betean gaude, bioerregai gehiago ekoizteko eta petrolioaren prozesaketa murrizteko. Aldi berean, hidrogeno berriztagarriaren ekoizpena eta ekonomia zirkularra sustatzen ditugu.

Horretarako, ibilbide-orri zorrotza garatu dugu, eta gure gida da deskarbonizazioarako bidean.

Testuinguru horretan, gure deskarbonizaziorantzko ibilbidea bi ardatz nagusitan dago oinarrituta: eraginkortasun energetikoa eta eraldaketa industrialak.



ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

Petronorren, uste dugu eraginkortasun energetikoa etengabeko prozesu iraunkorra dela eta, horretarako, behar besteko aukerak bilatu behar direla teknologia-aren, diseinuaren, eragiketaren eta mantentze-lanen arloan. Horren adierazgarri, geure planak ditugu, baita 2006an hasi eta karbonoaren intentsitate energetikoa murriztea helburu daukan estrategia ere.

Isuriak gutxitzeko asmoz, zenbait proiektu garatu ditugu, eta, haien artean, honako hauexek nabarmentzen dira: unitateen integrazio energetikoa, la-beetako eraginkortasunaren hobekuntza, makina handien elektrifikazioa, hondakin-beroaren ustiapena edo prozesuko isuriaren murrizketa.

Zehatz-mehatz, 2017-2023ko epealdian, eraginkortasun energetikorako 30 ekimen baino gehiago jarri genituen abian, eta zenbatekoa 70 milioi eurokoa izan zen. Horren ondorioz, urteko 161.204 t CO₂ isuri murriztu genituen. 2024an, geure ekimenen zerrenda luzatu genuen sei proiektu berri abian jartzean, eta zenbatekoa 3,8 milioi eurokoa izan zen guztira. Hori dela eta, urteko 20.068 t CO₂ isuri murriztu genituen.

2025-2027ko epealdian, findegiko instalazioetako eraginkortasuna hobetzeko 19 proiektu gehigarri betearaziko ditugu, eta zenbatekoa 120 milioi eurokoa izango da guztira.

Orain dela gutxi, konpresore berria erosi dugu findegiko unitateetako batentzat. Aldaketa horren bidez, eraginkortasun energetikoa hobetuko da elektrifikazioaren bidez, kondentsazioko turbinaren ordeztu, eragingailu elektriko eta abia-dura-aldagailua dituen errendimendu handiagoko konpresorea jarriko delako. Horiek horrela, energiaren kontsumoak hobera egingo du, eta isuriak murriztuko dira. Inbertsio hori 2025eko martxoan jarri da abian, bere zenbatekoa 20 milioi eurokoa izan da eta ustezko murrizketa urteko 25.000 t CO₂-koa izango da.

Guztira, 2025etik 2027ra arte ezarritako eraginkortasun-proiektuei esker, murrizketa zenbatetsia urteko 100.000 tona CO₂-koa izango da. Hori dela eta, eragin zuzena izango dute deskarbonizazioarekin hartu ditugun konpromisoetan.

ERALDAKETA INDUSTRIALA

Eraldaketa industrialaren inguruan daukagun ikuspegia honako bi zutabe nagusi hauetan dago oinarrituta: gaur egungo prozesuetako unitateen aldaketa eta proiektu industrial berriak.

• Gaur egungo prozesuetako unitateen aldaketa

Lehenengo eta behin, gaur egun ditugun unitateak aldatuko ditugu, haien bizitza teknikoa luzatzeko eta karbono gutxiko produktu berriak ekoizteko. Testuinguru horretan, 14 proiektu zehaztu dira ibilbide-orrian, eta zenbatetsitako inbertsioa 542 milioi eurokoa da.

Inbertsio horien garapena bi fasetan dago banatuta:

1. FASEA

14 proiektuetatik, 4 jarriko dira abian, destilatu ertainen ekoizpenerako unitateek baterako prozesaketarako duten gaitasuna handitzeko asmoz. Horretarako, bio jatorriko lehengaien ehuneko handiagoa erabiliko da. Esate baterako, biojeta eta diesel berriztagarria ekoizteko proiektuak ditugu hizpide.

2. FASEA

Teknologiak ez daude hain garatuta, eta gainerako 10 proiektuak jarriko dira abian, baterako prozesaketan maila handiak lortzeko eta, horrela, erregaien ekoizpenean bio produktuen zein hondakinen erabilera %100 izateko.

• Proiektu industrial berriak

Bigarrenez, ikuspegia berritzaileagoa dela kontuan hartuta, proiektu industrial berriak garatuko ditugu, merkatuan dugun lehiakortasunari eusten diogula bermatzeko eta sektoreko aurrerakuntza teknologikoetara egokitu ahal izateko.

Orain arte, ekoizpen-unitate berriak garatzeko sei proiektu bultzatu ditugu guztira, eta inbertsio globala 544 milioi eurokoa izan da.



Egindako proiektuak


Eraldaketaren kontzeptuaren barruan, honako proiektu hauek nabarmentzen dira:

• Energia berriztagarria

Hidrogeno berriztagarriaren arloan, gure proiektu nagusia Bilboko portuan hiru elektrolizadoreko parkea sortzea da, hidrogeno berriztagarria ekoizteko. Gure filiala den Alba Free Emission Energyren bidez garatuko dugu, zenbait enpresaren laguntzaz; esate baterako, EEE, Nortegas, Enagás renovable, O.C.O. eta Aramco.

2023ko urrian, 2,5 MW-ko elektrolizadorea eraikitzen hasi ginen, esportaziorako hidrogenoa ekoizteko. Gaur egun, abian dago, eta handiagoa dena, 100 MW-koa, izapideen azken fasean dago.

Harrotasunez aipatu nahi dugu 2024ko uztaillean 100 MW-ko elektrolizadorea izan zela Europako Batzordeak hautatutako zazpi proiektuetako bat, industrian hidrogeno berriztagarria ekoizteko eta erabiltzeko finantzaketa jaso dezaten. Ministroen Kontseiluaren esleipeneko emaitza den aitortza horrek azpimarratu egiten du zeinen garrantzitsua den gure proiektua, Europako Interes Erkideko Proiektu moduan (IPCEI) sailkatu dutela kontuan hartuta.



1. irudia. Petronorreko elektrolizadoreak

Beste proiektu bat ere nabarmendu nahi dugu, hau da, Hidrogenoaren Euskal Igarobidean (BH2C) daukagun partaidetza. Elkarlaneko proposamen horretan, erakunde publiko eta pribatuek esku hartzen dute, hondakinen eta biomasaren bidez hidrogenoaren ekosistema sortzeko asmoz. Bruselan H2 Valley of the Year saria eman diotenez, uste dugu lagungarria izango dela eskualdea hidrogeno garbiaren erreferente moduan sendotzeko orduan.

Horrez gain, garapen jasangarrirako dugun helburuaren arabera, urte honetako apirilean, lankidetzak-hitzarmena sinatu dugu Amsterdamgo portuarekin, Holandako Gaslog gas-operadorearekin eta Alemaniako EnBW energia-konpainiarekin, eta, gure ustetan, Europako hidrogeno berriztagarriaren merkaturak garatzen lagunduko digu, industriaren deskarbonizazioa eta mugikortasuna bultzatuko dituelako.



Proiektu horiek guztiak energia berriztagarriekin eta industriaren deskarbonizazioarekin dugun konpromisoaren adierazgarri dira, eta findegi lehiakorragoa lortzea dute helburu.

Bestetik, merkatua handitzeko dugun xedearen barruan, hiru ekoizpen-unitate berri hauek nabarmendu nahi ditugu:

• Polimero-mailako propilenoa ekoizteko lantegia

2024ko urrian, polimero-mailako araztasun handiko propilenoa bero-ponparen bidez ekoizteko lantegia eraikitzen hasi gara, eta inbertsioa 58 milioi eurokoa izan da. Lantegi horri esker, %99,5eko araztasuna duen propilenoa ekoiztiko da, eta, oso eskari handiko produktua denez, finketaren merkatuan dugun dibertsifikazioa indartuko du. Horrez gain, lagungarria izango da isuri zuzenak urteko 30.000 t CO₂ baino gehiago murrizteko, eta industria-guneko uraren kontsumoa gutxituko du.



• Mineralizazioko lantegia


Deskarbonizazioan eta iragaitza energetikoan diharduen Alba filialaren bidez eta Europako Batzordeko Innovation Fund programako 282.000 euroko finantzaketaren babespean, proiektu berritzailea garatzen ari gara gure bazkide teknologikoa den O.C.O Technologyren laguntzaz.

Programa horrek karbono gutxiko teknologiak garatzen dituzten ekimen aitzindariak sustatzen ditu. Esparru horretan, mineralizaziorako prozesuaren bidez CO₂ atzitzea eta finkatzea daukagu helburu.

Prozesuan bertan, ekoizpen-lantegia diseinatu eta eraikiko da, Karbonatazio Azkartuko Teknologiaren (ACT) eta hiri-hondakin solidoen bidez karbono negatiboko ekoagregakinak ekoizteko.

Ekonomia zirkularra proiektu horren funtsezko zutabea da, teknologia horri esker erraustegietako hondakinak birbaloizatzen direlako eta mineral karbonatatu bihurtzen direlako. Horretarako, aurretiaz atzitutako CO₂ finkatzen da. Horiek horrela, isuriak murriztu ez ezik, teknologia horrek ekoagregakin ere bihurtzen ditu hondakin horiek, eta material jasangarri horiek eraikuntzaren sektorean erabiliko dira.

Aurreikuspenen arabera, lantegia 2026an jarriko da abian, 22.000 t hondakin tratatuko ditu urteko eta ekoizpen-ahalmena urteko 56.000 t-koa izango da.



2. irudia. O.C.O Technologyrekin batera garatutako mineralizazio-lantegia.

• Erregai sintetikoaren lantegia

Azkenik, berriena erregai sintetikoaren lantegia da, Repsol Taldearen lehenengoa, eta inbertsioa 120 milioi eurokoa izan da. Lantegia Bilboko portuan dago kokatuta, eta Eusko Jaurlaritzaren, Enagásen eta Saudi Aramcoren laguntzaz ari da eraikitzen. Bertan, hidrogeno berriztagarriaren hornikuntzarako 10 MW-ko elektrolizadorea egongo denez, nekez elektrifikatzen diren sektoreen deskarbonizazioa sustatuko du; esate baterako, distantzia luzeko, itsas eta aireko garraioa.

Lantegi horretan ekoiztutako erregai sintetikoak gaur egungoak (gasolinak, gasolioak eta kerosenoak) ordezkatzeko gai izango dira, eta bateragarriak izango dira gaur egungo ibilgailuetako motorrekin. Aurreikuspenen arabera, lehenengo lantegi eredugarria 2026an jarriko da abian.

Inbertsioak

Deskarbonizaziorako ibilbidean zehaztutako helburuak lortzeko, 2024an, Petronorren, aurrekontu guztiaren %57 erabili dugu deskarbonizazioko proiektuetarako. Inbertsioetako gastua, beraz, 98 M-koa izan da. Ingurumenarekin lotutako inbertsioak kontuan hartzen baditugu, balioa 3 puntu handiagoa denez, inbertsio guztien %60koa da.

Aurrekontu osotik, 17,7 M eraginkortasun energetikoko proiektuetarako erabili dira.

Datu horiek agerian uzten dute konpromiso irmoa dugula iragaitza energetikoarekin eta etengabe ahalegintzen garela Pariseko Itunean ezarritako helburuak lortzen.



DESKARBONIZAZIOA
.....
AURREKONTUAREN
%57

Klima-aldaketarekin eta energiarekin lotutako helburuak


Klima-aldaketaren ondorioak murriztea gure sektoreak gaur egun dituen erronka handienetakoa da. Hori dela eta, Repsol Taldeko kide moduan, Pariseko Hitzarmenean zehaztutako helburuei ematen diegu babesa, eta, aldi berean, Repsolek 2050ean inolako isuri garbirik gabeko konpainia izateko hartutako konpromisoa sustatzen dugu, mende honen amaieran tenperatura 1,5 °C baino gehiago igo ez dadin. Alde horretatik, Petronorrek Repsol Taldeak deskarbonizazioaren arloan dituen helburuen lorpena bultzatzen du bete-betean.

6. taula. Repsol Taldearen deskarbonizaziorako helburuak eta Petronorrek bertan duen ekarpena.

Adierazlea	Unitatea	2025	2030	2040	2050
1., 2. eta 3. irismeneko isuri absolutuak	MtCO ₂ e		-%20		NZE ¹
1. eta 2. irismeneko isuri tratatuak	MtCO ₂ e		-%55		NZE ²
Karbonoaren Intentsitatearen Adierazlea (KIA) ³	gCO ₂ e/MJ	-%15	-%28	-%55	NZE ⁴

Inolako isuri garbirik ez daukala adierazi duen lehenengo petrolio eta gas konpainia

2019KO KONPROMISOA • 2020KO GEHIKUNTZA • 2021EKO FINKAPENA

Karbonoaren Intentsitatearen Adierazlea murrizteko helburuak⁵ [gCO₂/MJ]

1., 2. eta 3.⁶ irismenetan
inolako isuri garbirik
ez sortzeko erritmoa
azkartzeko asmo berria

¹ NZE: inolako isuri garbirik ez, hondakin-isuriaren neutralizazioa kontuan hartuta (2050ean baino ez).² NZE: inolako isuri garbirik ez, hondakin-isuriaren neutralizazioa kontuan hartuta (2050ean baino ez).³ KIA: Karbonoaren Intentsitatearen Adierazlea. Kalkulatzeko orduan, honako hauexek batzen dira: 1. eta 2. (eragiketak) eta 3. irismeneko (petrolioaren nahiz gasaren lehen mailako ekoizpenaren bidez lortutako produktuaren oinarritutakoa) berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak, zenbakitzailean; eta zenbait energiaren ekoizpenaren bidez hornitutako energia, izendatzailean.⁴ NZE: inolako isuri garbirik ez, hondakin-isuriaren neutralizazioa kontuan hartuta (2050ean baino ez).⁵ Erreferentziako oinarria: 2016.⁶ Gure *upstream* ekoizpeneko produktuen erabileran oinarritutako isuriak.

Parametroak eta metrikak

Kontsumo eta konbinazio energetikoak

Petronorren, uste dugu energia-iturrien konbinazioaren eta kontsumoaren azterketa xehatua egitea funtsezkoa dela ingurumenean dugun eragina ebaluatzeko eta murrizteko orduan. Banakapen horri esker, geure eragiketen eraginkortasun energetikoa hobetzen dugu.

Hona hemen 2023. eta 2024. urteetako zenbait parametroren taula:

7. taula. Kontsumo eta konbinazio energetikoak (2023-2024).

Kontsumo eta konbinazio energetikoak	2023	2024
Ikatzetik eta bere deribatuetatik datorren erregaia-ren kontsumoa (MWh)	Ez dago kontsumorik	Ez dago kontsumorik
Petrolio gordinetik eta petrolio-produktuetatik datorren erregaia-ren kontsumoa (MWh)	6.164.111	6.295.816
Gas naturaletik datorren erregaia-ren kontsumoa (MWh)	1.427.244	1.690.777
Energia fosilaren kontsumoa guztira (MWh)	7.591.355	7.986.593
Energia elektrikoaren kontsumoa (MWh)*	672.014,69	648.036,00
Iturri berriztagarrien proportzioa energiaren kontsumo osoan (%)	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri
Iturri nuklearretatik datorren erregaia-ren kontsumoa (MWh)	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri
Iturri berriztagarrietatik datorren erregaia-ren kontsumoa (MWh)	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri

* Kanpoko EEren (energia elektrikoa) erosketaren energiaren mixetik dator. Orain arte, ez daukagu jatorria bermatzen duen EEren erosketarik.

1., 2. eta 3. irismeneko BEG gordinen isuriak eta BEGen isuriak guztira

1. eta 2. irismeneko isuriak gure eragiketekin eta gure kontsumo energetikoarekin daude lotuta. 3. irismeneko isuriak gure balio-kateko jarduera guztiekin daude lotuta.

Enpresa deskarbonizatzeko neurri moduan, hurrengo taulan, 1. eta 2. irismeneko isuriei buruzko datu kuantitatiboaren xehetasunak azaltzen dira. Grafikoen ordea, enpresak azken urteotan karbono dioxidoan murriztutako tonak agertzen dira, baita haien etorkizuneko proiektzioak ere.

8. taula. 1. eta 2. irismeneko berotegi-efektuko gasen isuriak.

	2023	2024	(2023 -2024) Aldaketa
1. irismeneko BEGen isuriak			
1. irismeneko BEGen isuri gordinak (tCO ₂ ,eq)	2.158.785	2.129.853	-1,46%
CO ₂ ren isuriak (1. irismena)	2.147.154	2.115.785	-1.5%
Isurtzeko eskubideen merkatarit-zako araubide arautuetatik datozen 1. irismeneko BEGen isurien ehunekoa (%)	%99,46	Aurreikuspenen arabera, 2026rako eman ahal izango da informazio hau.	-
2. irismeneko BEGen isuriak			
Kokapenean oinarritutako 2. irismeneko BEGen isuri gordinak (tCO ₂ ,eq)	15.096t	1.447t	-



1. grafikoa. MMOOen4 eta Inbertsioen bidez egiaztatutako karbono dioxidoaren tonen murrizketa.

2024* - 1. eta 2. irismenak ISO14064 araupean egiaztatu dira.

2025** 2026** - proyección según fechas de Puesta en Marcha de la hoja de ruta.

Grafikoan, 2021etik ISO 14064 arauaren arabera CO₂ murrizteko ezarritako ekintza zuzenduen ziurtapenari buruzko datuak azaltzen dira. Kanpoko auditoriaren bidez ziurtatu dira eragiketetan lortutako CO₂ murrizketei buruzko benetako datuak, prozesuko unitateetan eragiketak hobetu edo inbertsiorako proiektuak ezarri ondoren. Isurietan lortutako murrizketa bateratzeko modukoa izan beharko da, ekintza zuzendu moduan ziurtatu ahal izateko. Ziurtatu daitekeen gehieneko epealdia 12 hilekoa da, jarduketa zerbitzuan jartzen denetik hasita⁷.

⁷ Merkatu-mekanismoak eta beste batzuk.

BEGen xurgapenak eta BEG murrizteko karbono-kredituen bidez finantzatutako proiektuak

Deskarbonizaziorako dugun estrategian, lehentasunezkoa da gure isuriak eta gure balio-kateko isuriak garapen teknologikoaren eta eraginkortasunaren bidez (eragiketen eraginkortasuna eta eraginkortasun energetikoa) saihestea eta murriztea, isurien murrizketaren arloan zehaztutako helburuak erdietsi ahal izateko.

Gaur egun, ez daukagu CO₂ atmosferikoa desagerrarazteko garatutako eta gure eragiketetan edo balio-katearen parte moduan ezarritako proiektuen ondorioz biltegitratutako CO₂ tonarik.

Karbonoaren barruko prezioa finkatzeko sistemen ezarpenaren zabalkundea

Repsolek karbonoaren barruko prezioa finkatzeko sistema dauka, eta, Petronorren, taldeko kidea garenez, geure egiten dugu.

Karbonoaren barruko prezioaren finkapena funtsezko mekanismoa da ustezko inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko orduan, batez ere, sortutako isuri zuzenetan edo zeharkakoetan (1. eta 2. irismena) eragina izan dezaketenak ebaluatzean.

Taldearen inbertsioen ebaluazioan kontuan hartutako balio horiek inbertsio berrien bideragarritasuna eta errentagarritasuna aztertzeke erabiltzen dira. Horrez gain, sortutako isuri zuzenetan edo zeharkakoetan eduki dezaketen eragina ebaluatzeke aukera ematen dute.

Europar Batasuneko eragiketetan bertan karbonoaren barruko prezioa zehazteko orduan, erreferentziatutako jotzen dira gaur egungo prezioa eta European Union Emissions Trading Scheme (EU ETS) etorkizuneko aurreikuspenak, gaur egun finkatutakoa 2025erako 75 \$/t-koa dela eta 2030erako 110 \$/t-koa dela kontuan hartuta.

Arauketa zorrotzagorik ez duten herrialdeetan, karbonoaren barruko prezioa 60 \$/t CO₂-koa da 2024-2030eko epealdirako. Prezio horiek miaketarako eta ekoizpenerako proiektuetan ezartzen dira, batez ere. Metanoaren eta ohiko flaringaren isuriak murrizteko proiektuetan, nahiz eta prezio berbera erabili, inbertsioa bideragarriagoa izaten da, sarritan ondoriozko prezioa 60 \$/t CO₂ baliokidea baino txikiagoa delako.

Kutsadura

Kutsaduraren arloko politikak

etronorren, Ingurumen Politika dugu, eta behar besteko konpromisoa daukagu, gure eragiketen ondorioz sortutako substantzia kutsagarriak airera, uretara eta lur-zorura isurtzean sortutako eraginak prebenitzeko eta kontrolatzeko. Politika horrek ekoizten ditugun produktuak erabiltzean sortutako ingurumen-eragina murriztea ere badauka helburu, gorabeherarik eta larrialdirik egon ez dadin. Horrez gain, ingurumenarekiko konpromisoak sustatu eta hartzen ditugu geure balio-katean, bazkideak, hornitzaileak, kontratistak, banatzaileak eta merkataritzako beste harreman batzuk kontuan hartuta.

Industria-guneekin batera, gure eguneroko eragiketa gidatzen duten funtsezko ingurumen-printzipioak ezarri ditugu:



1. Baliabide naturalen erabilera murrizten dugu



2. Ez dugu inolako tolerantziarik ingurumenaren kalterako diren isuriekin



3. Ura zaintzen dugu



4. Airearen kalitatea lehentasunezkoa dela ziurtatzen dugu



5. Eragiketak garatzen ditugun erkidegoetan aukazide onak izaten ahalegintzen gara

Printzipio horiek gure ingurumen-estrategiaren oinarria dira, eta barruko kontzientziaziorako nahiz prestakuntzarako ekintzen bidez indartzen dira. Alde horretatik, 2024an, printzipio horiei buruzko prestakuntza eman genien geure langile guztiei. Partaidetza %93,40koa izan zenez, argi dago egunez egunekoan ezartzeko prozesuaren inguruko inplikazioa eta konpromisoa oso handiak direla.

Kutsadura kontrolatzeko hartutako neurriak eta ekintzak

Antolatutako urte anitzeko geldialdietan, ingurumenarekin dugun konpromisoa sendotzen dugu Ingurumeneko Ekintza Planaren bidez. Geldialdi horiek funtsezko aukerak dira, eraginak ebaluatzeko eta isurien, usainen zein zaraten murrizketarako prebentzio-neurriak ezartzeko.

Aurten, hain zuzen ere, Bihurketa Arloko geldialdian baino ez, 47 milioi euroko inbertsioa egin dugu guztira, findegiko instalazioak berrikusteko, eraberritzeko eta berritzeko, eta 13 unitateetako 300 ekipamendutan baino gehiagotan jardun dugu. Geldialdi horretan, 45 enpresa desberdinetako 1.200 langilek baino gehiagok parte hartu dute, eta, guztira, 325.000 lan-ordu garatu dira.

Oraintsu, FCCn, partikulen isuriak desagerrarazteko sistema jarri dugu abian. Horretarako, iragazki berria jarri da, partikulen kontrola hobetzeko, eragiketen fidagarritasuna indartzeko eta sistemaren iraunkortasuna handitzeko.

Horrez gain, usainak murrizteko hobekuntza esanguratsuak egin ditugu; esate baterako, labeetako fuel gasaren zirkuituen garbiketa hobetzea. Halaber, gehigarrien bidezko neutralizazio-teknikak ezarri ditugu ekipamendu handietan, usainak eta isuri kaltegarriak saihesteko.

Horrez gain, efluente likidoen kudeaketa hobetu dugu kontrolpeko ekarpenen sistemaren bitartez, eta uraren/hidrokarburoaren banaketa hobetzeko plana jarri dugu abian. Horretarako, teknologia aurreratuak erabili ditugu, uretan dauden hidrokarburoak antzemateko. Hori dela eta, finitzeko prozesuaren kontrola eta eraginkortasuna handituko dira.

Kutsadurarekin lotutako helburuak

Ingurumenaren arloko printzipioak neugarriak izan daitezen, etengabeko hobekuntzarako zenbait xede eta helburu zehaztu ditugu. Haien osagarri, eskuragarri dauden teknologia onenak (ETO) ezarri ditugu, eta arau-eskakizun zorrotzenak bete ditugu.

Horrela, urterik urte ingurumenaren arloan garatzen dugun lana ebaluatze eta hobetzeko gai gara.

Hona hemen kutsaduraren arloko berariazko helburuak:

9. taula. Atmosferaren, lurzoruaren eta lurpeko uren kutsaduraren prebentzioarekin lotutako helburuak.

	Helburua	Azalpena	Aurrerakuntza eta betearazpena
Airerako isuriak	Gardentasuna bermatzea eta atmosferara zein uretara doazen substantzia kutsagarrien isuriei buruzko informazioa eskuratzeko aukera publikoa ematea	Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko urtarrilaren 18an emandako 166/2006 Araudiari (EE) buruzko arauak betetzea. Horren bidez, Kutsatzaileen Isurien eta Igorpenen Erregistro Europarra (E-PRTR) ezartzen da	Geure isuriei buruzko informazio zehatza ematea, gure eragiketen ondorioz sortutako kutsatzaileak eta ingurumeneari duten eragina oso-osorik kontrolatzen direla ziurtatzeko
Lurzoruaren eta lurpeko uren kutsaduraren prebentzioa	Gure eragiketekin lotutako arriskuak gutxitzea eta ingurumeneari dugun eraginaren kontrol zorrotza bermatzea	Indarreko araudiaren arabera, honako hauexen bidez kutsadura prebenitzea: barruko segurtasun-estandarrak, berariazko ekintza-planak eta isurien kontrol zorrotza	• Epe labur eta ertainerako ekintza-planak abian jartzea • Prozesuetako segurtasun-estandarrak eta jarduketa-protokoloak ezartzea • Ingurumen Baimen Integratuan (IBI) zehaztutako isuri-mugak zehatz- mehatz betetzen direla ziurtatzea • Arriskuen etengabeko ebaluazioa egitea eta prebentzio-neurriak ezartzea

Parametroak eta metrikak

Hona hemen 2023. eta 2024. urteetako kutsatzaileei buruzko datuak.

10. taula. 2023an eta 2024an atmosferara isuritako kutsatzaileak.

Zk.	CAS ⁸ zk.	Kutsatzailea	Atmosferara (kg urteko)	
			2023	2024
7		CH ₄ ez beste konposatu organiko lurrunkorak (COVDM)	1.884.842	2.018.455
8		Nitrogeno oxidoak (NO _x /NO ₂)	1.194.337	1.523.777
11		Sufre oxidoak (SO _x /SO ₂)	6.907.001	5.028.846
17	7440-38-2	Artsenikoa eta konposatuak (As)	3	3
18	7440-43-9	Kadmioa eta konposatuak (Cd)	7	95
19	7440-47-3	Kromoa eta konposatuak (Cr)	81	71
20	7440-50-8	Kobrea eta konposatuak (Cu)	21	27
21	7440-97-6	Merkurioa eta konposatuak (Hg)	3	4
22	7440-02-0	Nikela eta konposatuak (Ni)	66	57
23	7439-92-1	Beruna eta konposatuak (Pb)	22	27
24	7440-66-6	Zinka eta konposatuak (Zn)	528	446
72		Hidrokarburo Aromatiko Poliziklikoak (HAP)	75	86
92		Partikulak guztira	90.941	111.568

11. taula. 2023an eta 2024an uretara isuritako kutsatzaileak.

Nº	CAS ⁶ zk.	Kutsatzailea	Uretara (kg)	
			2023	2024
12		Nitrogenoa guztira	85.318	79.769
17	7440-38-2	Artsenikoa eta konposatuak (As)	0	0
18	7440-43-9	Kadmioa eta konposatuak (Cd)	0	0
19	7440-47-3	Kromoa eta konposatuak (Cr)	0	0
20	7440-50-8	Kobrea eta konposatuak (Cu)	0	0
21	7440-97-6	Merkurioa eta konposatuak (Hg)	0	0
22	7440-02-0	Nikela eta konposatuak (Ni)	0	0
23	7439-92-1	Beruna eta konposatuak (Pb)	0	0
24	7440-66-6	Zinka eta konposatuak (Zn)	0	56
39	72-20-8	Konposatu organiko halogenatuak (AOX)	1.947	2.184
62	71-43-2	Bentzenoa (BTEX)	10	3
71	108-95-2	Fenolak	0	0
72		Hidrokarburo Aromatiko Poliziklikoak (HAP)	16	1
76		Karbono Organikoa Guztira (KOG)	254.294	186.786
79		Kloruroak	1.501.848	1.684.817
82		Zianuroak	0	0
83		Fluoruroak	4.283	6.406
98		Oxigenoaren Eskari Kimikoa (OEK)	483.836	530.821
97		Banadioa	0	0

⁸ CAS zenbakia: Chemical Abstracts Servicesek substantzia kimiko bakoitzari esleitutako zenbakizko izendapen bakarra.

Alderdi ez-materialak

Uraren kudeaketa jasangarria eta biodibertsitatearekin dugun konpromisoa

Ur eta itsas baliabideak Petronorrentzat eragin handiko gaietakoa ez badira ere, zenbait ekintza jarri ditugu abian, geure eragin ona ahal den neurrian areagotzeko, eragin txarra gutxitzeko eta, horrela, ingurumenarekin dugun konpromisoa berresteko. 2022ko abendutik, Repsol Taldea Nazio Batuetako CEO Water Mandatera dago atxikita. Ekimen horrek enpresa-sektorean uraren kudeaketa arduratsua bultzatzen duenez, segurtasun hidrikoa eta Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) lorpena sustatzen dira.

Testuinguru horretan, berariazko ekintzak garatu ditugu funtsezko zenbait arlotan:

- **Eragiketa zuzenak:** uraren kontsumoa eta berrerabilera hobetzen ditugu, eta, horretarako, drainatzeko eta uren tratamendua hobetzeko sistema automatikoak ezartzen ditugu.
- **Hornikuntza-katea:** ur-iturri alternatiboak ebaluatzen ditugu, estres hidrikoko ustezko egoerei aurre egiteko.
- **Ekintza kolektiboa:** hiriko hondakin-uren araztegietatik (HHUA) datozen ur berrerabilien erabilera aztertzen dugu.
- **Politika publikoa:** bete-betean parte hartzen dugu Repsolek sustatutako foro eta ekimenetan, uraren kudeaketa jasangarria bultzatzeko.
- **Erkidegoko partaidetza:** aholkularien taldeekin lan egiten dugu, eta aurrerakuntzak zein tokiko eraginak partekatzen ditugu, gardentasun-politikari eusteko. Horretarako, industria-guneko Jasangarritasun Plana argitaratzen dugu, eta uraren kudeaketarako funtsezkoak diren adierazleak aurkezten ditugu urtero.

Horrez gain, Repsoleko Eraldaketa Industrial eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako Water Zero helburuarekin bat gatozela eta Penintsula Iberikoan kokatutako instalazioetan ezartzen dela kontuan hartuta, behar besteko konpromisoa hartu dugu, 2050. urterako geure eragiketa guztietan ingurumeneko ohiko baliabideetatik datorren ur gezaren atzipen garbirik egon ez dadin. Bilakaera horretan zeresana duten bitarteko gertaerekin bat egiten dugu:

2030

.....

**UR GEZAREN
ATZIPENA
EZ HANDITZEA**

2035

.....

**UR GEZAREN
ATZIPENA
%30 MURRIZTEA**

Ingurunearekin dugun konpromisoaren eta gure jasangarritasun-politiken arabera, Petronorrek biodibertsitatea eta ekosistemak babesteko eta kudeatzeko ahalegina ere egiten du. Gure materialtasun bikoitzaren azterketan faktore horiek material moduan sailkatu ez badira ere, garrantzi eztaba daezina dute oreka ekologikorako eta epe luzearako jasangarritasunerako.

Biodibertsitatean eta ingurunearen kudeaketan nabarmentzen diren ekimenak:

.....

• Itsaslur proiektua

Muskizko 65 hektareako lursaila modu jasangarrian leheneratzeko prozesua sustatzen dugu, nekazaritzarako, abeltzaintzarako, basogintzarako eta aisialdi arduratsurako erabiltzeko. Proiektu horren bidez, lekune natural eta kultural paregabea babesten da, baina, horrez gain, Bizkaiko ingurumena leheneratzeko prozesuko erreferentea ere bada gaur egun.



• Mello mendiko basoa berritzea

Proiektu hau 2019an hasi zen sute baten ondorioz. Gaur egun, tokiko 3.500 zuhaitz baino gehiago landatu ditugu, 7,5 hektarea leheneratu ditugu eta ingurumen-hezkuntza bultzatu dugu inguruko ikasleen artean.

• Pobeñako dunak leheneratzea

Pobeñako Hilario Cruz Elkartearen laguntzaz, kostaldeko dunak leheneratzen ari gara, eta, bertan, 200 boluntario baino gehiago daude inplikatur, tokiko biodibertsiterako funtsezkoa den ekosistema babesteko.

• Ekoizpen jasangarriaren sustapena

Enkarterrialdearekin batera, tokiko ekoizpen jasangarria bultzatzen dugu, baliabide naturalen erabilera arduratsua sustatzeko eta eskualdeko oreka ekologikoa indartzeko.



Baliabideen erabilera eta ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularraren arloko politikak

Ekonomia zirkularra eta baliabideen erabilera eraginkorra Petronorren ikuspegi estrategikoaren parte dira, eta, horren bidez, eredu jasangarriagoa xede duen eraldaketa bultzatzen du. Printzipio horiek 2024ko abenduan berrikusi dugun Ingurumen Politikan agertzen dira, eta, bertan, honako konpromiso hau ezartzen da: prozesu, produktu eta zerbitzuetan zirkulartasunaren irizpideak integratzea; lehengaien erabilera hobetzea; baliabide alternatiboak jasangarritasunez erabiltzea; eta ingurumenean eragin txikiagoa duten irtenbideen garapena sustatzea.

Ikuspegi horren arabera, Jasangarritasuna Kudeatzeko Sistema dugu erregaietarako eta findegian erabilitako material jasangarrietarako. Gainera, honako eske-ma hauen arabera dago ziurtatuta: ISCC EU, ISCC PLUS eta Egiaztapen Sistema Nazionala (SNVS). Sistema hori, gainera, honako hauexetan ezartzen da: lehengaiak, hondakinen olioak (BIOUCO), landare-olioak (VO eta HVO), biometanoa, bioMTBE, bioetanola, esterrak, nafta biozirkularra edo hidrogeno berriztagarria. Era berean, jatorriaren trazabilitatea bermatzen du, baita balio-kate osoan gizar-tearen, ingurumenaren eta isurien murrizketaren arloko irizpideak integratzeko prozesua ere.

Halaber, itsas jardueratik datozen hondakinak kudeatzen ditugu MARPOL 73/78 Hitzarmenaren esparruan, eta, bertan, itsasontziek itsasoan sorrarazitako kutsaduraren prebentzioa arautzen da. Testuinguru horretan, itsasontziek sortutako ur oliotsuak eta substantzia likido kaltegarriak jasotzen ditugunez, tratatu egiten ditugu, behar bezala balorizatu ahal izateko. Frakzio oliotsuak gure prozesu industrialetan berrerabiltzen dira, eta, frakzio urtsuak, ordea, uren araztegiari kudeatzen dira.



Ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarritutako ekintzak eta neurriak

2024an, zenbait ekintza bultzatu ditugu, ekonomia zirkularraren printzipioak gure eragiketetan eraginkortasunez integratzeko asmoz. Ekimen horien bidez, prozesu industrialak eraldatzen dira, eta produktu jasangarri berriak ere garatzen dira, besteak beste:

Erregai sintetikoaren demo-lantegia

Erregai sintetikoaren demostrazio-lantegia eraikitzen hasi gara Bilboko portuan, eta, bertan, Aramcok parte hartzen du bazkide estrategiko moduan. Lantegi horretan, atzitutako CO₂-ren isuriak eta hidrogeno berriztagarria erabiliko dira, urteko 2.000 tona erregai berriztagarri ekoizteko. Aurreikuspenen arabera, 2026rako egongo da abian, eta eraikitze fase nagusia 2025ean garatzen ari da.

Ekoagregakinen lantegia

O.C.O. Technology Limiteden laguntzaz, lursaila prestatzen hasi gara, hondakinen balorizaziorako lantegia eraikitzeke. Lantegi horretan, ekoagregakinek (kaltzio karbonatoa) ekoiztuko dira, hiri-hondakin solidoen errausketatik datozen errausen eta findegian atzitutako CO₂-ren bidez. Aurreikuspenen arabera, 22.000 tona erraus eta 2.200 tona CO₂ prozesatuko ditu urtero, eta ekoizpen zenbatetsia 56.000 tona ekoagregakinekkoa izango da urteko. Eraikuntza 2025ean hasiko da, eta, zenbatespenen arabera, 2026an jarriko da abian.

G1eko baterako prozesaketa

Gasolioak desulfurizatzeko G1 unitatearen aldaketa amaitu da, baterako prozesaketarako gaitasuna handiagoa izan dadin. Hori dela eta, %7,5 lortu da.

G2ko biojeta

Behar besteko baldintza logistikoak prestatu dira, G2 unitatean biojeta prozesatzeko. Gaur egun, abian dago.

FCCko hondakinak

Gaur egun, azterketa-fasean dago. FCC unitatean, hondakinetatik datozen olioien elikadura funtsezko ekintza izango da, ekonomia zirkularrean eta isurien murrizketan aurrera egiteko orduan.

Pirolisia

HUBeko lantegian hiri-hondakin solidoen pirolisia ezartzeko ingeniari-tza kontzeptuala amaitu denez, proiektuaren hurrengo faseak jarri dira abian.

Gasifikazioa

Azken produktu moduan metanola ekoizteko asmoz erabiltzen ez diren ibilgailuetatik eta hiri-zabor solidotik datozen hondakinak gasifikatzeko proiektuaren bidegarritasun-azterketa amaitu da.

Koipeak hustutzeko lekua

Koipeak husteko lekurako inbertsioa onartu denez, hondakin-lehengaien mota berriak ustiatu ahal izango dira.

G4ko baterako prozesaketa

G4 unitatean hobekuntzak egiteko beharrezkoa den inbertsioa onartu da, eta bioosagaiak batera prozesatzeko duen ahalmena %10eraino sendotzea dauka helburu. Horrela, prozesuaren deskarbonizazioa sustatuko da.

Ekintza horiei esker, badago lehengai fosilen inguruko menpetasuna murrizterik, hondakin-fluxuei onura ateratzerik eta ingurumen-aztarna txikiagoko produktuak sortzerik. Era berean, Repsol Taldeko Eraldaketa Industrial eta Ekonomia Zirkularreko Negozioaren parte moduan, bete-betean sustatzen dugu bere helburu estrategikoen betearazpena.

Testuinguru horretan, geure eta hirugarrenen hondakinen berreskurapena ere bultzatzen dugu, geure ekoizpen-katean berriro erabiltzeko. Horrela, ez dira zabor-tegietara edo erraustegietara eraman behar, eta isuri kutsagarriak gutxitzen dira. Horrez gain, barruko estandar handiak ezartzen ditugu geure jarduera industrialen diseinuan eta garapenean, airera, uretara edo lurzorura doazen nahi gabeko isuriak sorrarazi ditzaketen istripu-arriskuak murrizteko.

Ekonomia zirkularrarekin lotutako helburuak

Hurrengo taulan, Repsol Taldeak baliabideen erabileraren eta ekonomia zirkularraren arloan zehaztutako helburuak agertzen dira. Petronor bat dator haiekin, eta bete-betea sustatzen ditu.

2. taula. Baliabideen erabilerarekin eta ekonomia zirkularrarekin lotutako helburuak (E5-3).

Helburua	Azalpena	Aurrerakuntza eta betearazpena
Penintsula iberikoan, erregai berriztagarriei dagokienez, 2,2 milioi tonatik gorako ekoizpen-ahalmena lortzea 2030ean eta bitarteko gertaera 1,5 milioi tonakoa izatea 2027an	Erregai berriztagarriak ekoizteko, jatorri jasangarriko hondakin-lehengaiak edo CO ₂ -ren isurien atzipena erabiltzen dira. Beraz, helburu hori absolutua da, baliabideen sarrerarekin nahiz irteerarekin dago lotuta eta material zirkularren erabilera handitzea eta lehen mailako lehengaien erabilera murriztea du helburu	2024. urtearen amaieran, erregai berriztagarriak ekoizteko ahalmena 1,2 milioi tonakoa izan zen. Aurrerakuntza hori, beraz, bat dator hasierako plangintzarekin, eta ez da aldaketa esanguratsurik antzeman helburuaren betearazpenean
Lehengai alternatiboak (hondakin-plastikoa, esaterako) edo beste material berriztagarri batzuk darabiltzaten produktu zirkularrei edo bio jatorrikoei dagokienez, 150.000 tona baino gehiagoko ekoizpen-kopurua lortzea 2030ean eta bitarteko gertaera 65.000 tonakoa izatea 2027an	Repsoloko produktu zirkularrak edo bio jatorrikoak lehengai alternatiboak (hondakin plastikoa, esaterako) edo lehengai berriztagarriak darabiltzatenak dira. Erregai berriztagarriak eta biometanoa, ordea, helburu honetatik kanpo geratzen dira. Izan ere, honako hauxe da helburua: material zirkularren erabilera handitzea, lehen mailako lehengaien erabilera gutxitzea eta baliabide berriztagarrien hornikuntza zein erabilera jasangarriak bultzatzea	2024. urtearen amaieran, produktu zirkularren eta bio jatorrikoen ekoizpena 12.227 tonakoa izan zenez, aurreikusitako asmoa baino gutxiago egin du aurrera. Helburua zenbait faktorerengatik desbideratu da, EBn produktu jasangarriei buruzko legeria atzeratu delako eta behe-zikloan sartu garelako. Hori dela eta, eragina txarra izan da produktu horien eskarian

Repsoloko Eraldaketa Industrial eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendaritza Nagusiak ondoren xehetasunez azaltzen diren helburu guztiak zehaztu ditu, eta bat datoz Petronorren konpromiso estrategikoekin, lan-ingurunea inklusiboagoa zein seguruago dela eta bere helburua garapen profesionala dela bermatzeko.

Halaber, zenbait ekimen jarri ditugu abian, uraren erabilera hobetzeko asmoz. Horretarako, birzirkulazioa sustatu dugu, balantze hidrikoa hobetu dugu eta ur freskoaren kontsumoa gutxitu dugu geure eragiketetan.

Repsol Taldearen estrategia globalaren arabera, Aktibo Industrialen Eragiketako Arloan, 2025. urteari begira ingurumeneko ohiko iturrietatik datorren ur gezaren atzipena murriztu nahi dugu industria-guneetan. Horretarako, eraginkortasunerako eta birzirkulaziorako neurriak hartuko ditugu.

2023an, ur gezaren atzipenaren balio bateratua urteko 41,49 hm³-koa izan zen, eta erreferentzia moduan erabiliko da hurrengo urteetako aurrerakuntzak ebaluatzeko orduan.

Parametroak eta metrikak

Baliabideen kontsumoa eta hondakinen balorizazioa

2024an, gure eragiketetan, lehengai jasagarrien eta hondakin balorizatuen kopuru adierazgarriak erabili dira findegian nahiz deskarbonizaziorako proiektuetan. Hona hemen baliabideen sarrerei zein irteerei eta haien tratamenduari buruzko informazio xehatua:

Hondakin arriskutsuen kopuruak, MARPOL irizpidearen arabera

Hondakin arriskutsuen kudeaketa (MARPOL)	2023	2024
Ur oliotsuak (m ³) (MARPOL, I. eranskina)*	2.161,47	2.501,86
Substantzia kaltegarri likidoak (m ³) (MARPOL, II. eranskina)*	413,2	171,6

(*) m³ eta t asimilagarriak, uraren dentsitateagatik.

Erregai berriztagarrien sorkuntzarako hondakin ez-arriskutsuak

Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa, erregaiak sortzeko	2023	2024
POME (Palma-olioaren ekoizpen-efluentea) (t)	6.474,78	0,00
UCO (Used Cooking Oil) (t)	18.339,18	10.637,28
GUZTIRA (t)	24.813,96	10.637,28

Energia berriztagarrien prozesurako erabilitako SANDACH kopuruak

	2023	2024
SANDACH (t)	1.576,24	17.050,63

Energia berdearen sorkuntzan erabilitako lehengaien kopurua

	2023	2024
Baterako prozesaketarako LANDARE-OLIOA (t)	33.484,477	8.025,124
BIOESTERRA (t)	54.742,736	74.532,732
BIOETANOLA (t)	18.048,179	16.096,052
Etil-terk-butyl-etera (%47 etanola da) (t)	9.009,539	23.704,943
Baterako prozesaketarako HONDAKIN OLIO ETA KOIPEAK (t)	40.711,727	53.536,249
Landare Olio Hidrotratua (HVO) (t)	18.191,181	0
GUZTIRA (t)	174.187,839	175.895,100



Pertsonak

Gure langileak

Petronorren, badakigu pertsonak gure jardueraren eta gure indar nagusien sustatzaileak direla. Gure langileak oso ondo prestatuta daude, egonkorak dira eta konpromisoa dute. Haiei laguntzeko, gainera, honako arlo hauetako politika aktiboak jartzen ditugu abian: garapena, entzunaldia, bateragarritasuna, segurtasuna eta ongizatea.


2024an, soldatako 940 langile izan ditugu. Haietatik, %79,9 gizonak dira (751); eta %20,1, emakumeak (189). Horrez gain, batez beste, soldatakoak ez diren 1.000 langile izan ditugu, enpresa kontratistetakoa dira eta eginkizun osagarriak betetzen dituzte gure instalazioetan. Giza talde horrekiko lan-harremana egiaztapenerako eta homologaziorako sistemen bidez arautzen da, arauak eta laneko segurtasuna betetzen direla bermatzeko.

Enpleguaren egonkortasuna gure lehentasunetakoa da. Soldatako langileen %94k kontratu mugagabea dute, eta %97,3k lanaldi osoan lan egiten dute. Aldi baterako kontratudun langileen kopurua %5,8koa da, eta lanaldi mugatuan lan egiten duten kopurua langile guztien %2,7koa baino ez da. Egitura horren arabera, agerikoa da konpromisoa dugula kalitateko enpleguarekin eta lan-baldintza egonkor zein aurreikusgarriekin.

Adinaren arabera banaketari erreparatuz gero, langile-taldea heldua da, %68 30-50 urtekoak direlako; eta %30, 50 urtetik gorakoak. %1,8 baino ez dira 30 urtetik beherakoak. Hori dela eta, argi dago talentu gaztea erakarri beharra dagoela Talentu Gaztea edo Prestakuntza Duala bezalako programen bidez.

Zuzendaritzako langileak ere badira aniztasunarekin dugun gero eta konpromiso handiagoaren adierazgarri. 2024an, goi-zuzendaritzako %33 emakumeak izan zirenez, berariazko ekintzen bitartez bultzatzen jarraitzen dugun datua da.

Lan-ingurune inklusiboak sustatzen ditugu zenbait ekintzaren bidez. Gure langileen %2,45 desgaituak dira, eta honako hauexen bidez laneratzen ditugu: kontratazio zuzenak, lanpostuen egokitzapena eta erakunde adituekin garatutako lankidetza; esate baterako, Inserta eta Adecco. Ekimen horiek gure zerbitzu mediko eta psikoteknikoarekin daude koordinatuta.



Pertsonen arloko politikak

Repsol Taldeko Segurtasun, Ingurumen eta Kalitate Politika dugu, eta, bertan, HSE (Health, Safety & Environment) printzipioak hartzen dira kontuan, baita Repsol Talde osoarentzako erreferentzia-esparru berbera ere. Izan ere, segurtasunaren arloko helburu estrategikoak zehazten dira bertan. Horrez gain, Repsol Taldearen giza eskubideen arloko politikak ezartzen ditugu. Bertan, hain zuzen ere, honako arlo hauetako konpromisoak azaltzen dira: prebentzioa, behaketa eta konponbidea, eskubideen ustezko urraketak gertatzen direnean; esate baterako, bereizkeria, jazarpena edo haurren lana edo bortxazko lana. Langile guztiek zenbait mekanismo eskuratzeko aukera dute; esate baterako, betearazpen-kanala, Compliance Arloa eta Elkarbizitza Planean zehaztutako solaskideak.

Berdintasunaren arloan, 2023an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2023-2027) jarri genuen abian, eta hiru ardatz estrategikoren inguruan dago egituratuta: pertsonen berdintasunezko kudeaketa, genero-ikuspegia kontuan hartzen duen laneko osasuna eta komunikazio inklusiboa. Plan horretan, jazarpenaren prebentziorako protokoloa azaltzen da, eta berrikusten ari gara, etengabe eguneratzen dela bermatzeko. Era berean, Elkarbizitza Plana ere egiten ari gara, arretarako kanalak eta arduradunak nor diren argi eta garbi zehazteko.

Inklusioari dagokionez, ekintza positiborako politikak ditugu desgaituentzat, eta honako hauxe dute xede: kontratazio zuzenak, erakunde adituekin garatutako lankidetzak (Inserta, Adecco), erosketa sozialak edo lanpostuak egokitzeko neurriak. Hori guztia gure zerbitzu mediko eta psikoteknikoarekin batera ebaluatzen da. Prestakuntzan eta enpleguan, emakumeen agerpena sustatzen dugu titulazio teknikoetan (Lanbide Heziketa eta STEAM), eta bereizkeria positiborako neurriak ezartzen ditugu prozesuetan; esate baterako, lantegiko operadoreentzako ikastaroak.

Langileen printzipioetan oinarritutako ekintzak eta neurriak

Urtean zehar, barruko entzunaldi-tresnen bidez lortutako emaitzen arabera berariazko neurriak ere garatzen ditugu:

• Laneko giroa

“Eraldaketa Aliatuak” programa indartu da. Sare hori, hain zuzen ere, zenbait arlotako boluntarioek osatzen dute, eta barruko proposamenak bideratzea eta zeharkako komunikazioa dinamizatzea dute helburu. Programa horren bitartez, lan-saioak antolatu dira, langileen %80k baino gehiagok parte hartu dute bertan eta zenbait ekintza jarri dira abian: erdi-mailako arduradunentzako prestakuntzak, lidergoaren inguruko tailerrak eta arlo sentikorretan egindako berariazko jarduketak laneko giroa hobetzeko.

• Arrisku psikosozialak

Barruko inkestetako emaitzen arabera, funtsezko arloetarako ekintza-planak zehaztu dira; esate baterako, laborategia eta segurtasuna. Horrez gain, antzemandako premietara egokitutako prebentzio-neurriak hartu dira.

• Lan-harremanak eta entzunaldi zuzena

Komunikazio etengabe eta ona daukagu sindikatueta ordezkariekin, honako hauexen bidez: osasunaren, segurtasunaren eta ingurumenaren arloko hileko batzordeak; eta langileen zein Pertsona eta Antolakuntza Zuzendaritzaren arteko komunikazio zuzena sustatzen duten kanal informalek.

• Barruko komunikazioa

Langileen %90 baino gehiago gutxienez hiru hilean behin sartu dira Petrogune plataformara. Izan ere, funtsezko tresna da, informazio garrantzitsua partekatze, galderei erantzuteko eta hobekuntza-proposamenak biltzeko.

Soldatako langile guztiak enpresako hitzarmen kolektiboaren babespean daude, ordainsarien nahiz onura sozialen arloan. Langile batzuk modu formalean esparru horretatik kanpo badaude ere, ordainsarien eta baldintzen arloko irizpide berberak ezartzen zaizkie, barruko berdintasuna ziurtatzeko. Berdintasunerako II. Planaren esparruan ordainsarien inguruan egindako auditoriaren arabera, antzemandako aldeak %25etik beherakoak dira, eta, bertan, zenbait aldagaik dute zerikusia; esate baterako, antzinasuna edo lanpostu-mota eta sektorea, tradizioari begira gizonena izan delako. Ordainsari onena daukanak langile-taldearen batezbestekoak baino %198 gehiago jasotzen du, eta goi-zuzendaritza alde batera utzita, alde hori %109koa da.



Langileen arloko helburuak

Repsoleko Eraldaketa Industrial eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendaritza Nagusiak ondoren xehetasunez azaltzen diren helburu guztiak zehaztu ditu. Gainera, bat datoz Petronorren konpromiso estrategikoekin, lan-ingurunea inklusiboagoa zein seguruago dela eta bere helburua garapen profesionala dela bermatzeko.

Helburua	Azalpena	Aurrerakuntza eta betearazpena
Talentu gaztea eta dibertsoa erakartzea	Langileen zahartzapenari erantzutea (%1,8 baino ez dira 30 urtetik beherakoak), zenbait programaren bidez; esate baterako Talentu Gaztea eta Prestakuntza Duala. Era berean, dibertsitatea sustatzea	2024an, programa horiek egon dira abian, belaunaldien txandaketa eta profilen aniztasuna indartzeko asmoz
Emakumeen agerpena oro har bultzatzea, baita aginte-postuetan ere	Langile-taldean emakume gehiago egotea, %20,1 daudelako orain; eta, goi-zuzendaritzan, %33	Berdintasunerako II. Planaren eta prestakuntza teknikoetako bereizkeria positiborako ekintzen bidez, emakumeen agerpena %20,1eraino igo da langile-taldean
Saileko urteko segurtasun-plana betetzea	Segurtasunaren arloan aurreikusitako ekintza guztiak behar bezala ezartzen direla ziurtatzea	Prestakuntza-ekintzak, prebentziorako jarraipena eta berariazko batzordeen aldizkako bilerak egin dira
Garapen profesionalerako prestakuntza-ibilbideak abian jartzea	Etengabeko hobekuntzarako aukerak bermatzea langile guztientzat	2024an, langileen %100ek parte hartu dute prestakuntzan, eta batezbestekoa 32,42 ordukoa izan da laguneko. Gainera, berariazko 70 ordu baino gehiago eman dira segurtasunaren arloan, eragiketetako arriskuen aurrean espozizio handiagoa duten langileentzat

Metrikak

Pertsonen kudeaketan lortutako aurrerakuntza-maila modu objektiboan ebaluatzeko asmoz, honako hauexekin lotutako funtsezko zenbait metrika bildu ditugu: langile-taldearen osaera, lan-baldintzak, prestakuntza, bateragarritasuna eta laneko osasuna zein segurtasuna:

Soldatako langile-taldearen osaera, sexuaren arabera

Sexua	Soldatako langileen kopurua
Gizonak	751
Emakumeak	189
Soldatako langileak guztira	940

Kontratu-mota eta lanaldia, generoaren arabera

	Generoa		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Soldatako langileak	189	751	940
Soldatako langile iraunkorrak	174	711	885
Aldi baterako soldatako langileak	15	40	55
Lanaldi osoko soldatako langileak	176	739	915
Lanaldi mugatuko soldatako langileak	13	12	25

Langileen banaketa, adinaren arabera

Adin-taldeak	Kopurua	Ehunekoa
30 urtetik behera	17	1,81
30 - 50 urte	639	67,98
50 urtetik gora	284	30,21

Goi-zuzendaritzaren osaera, generoaren arabera

Generoa	Kopurua	Ehunekoa
Emakumeak	2	33,33
Gizonak	4	66,67

Bateragarritasuna eta gurasoen baimenak

Gurasoen baimenak edo antzeko beste neurri batzuk hartu zituzten langileen ehunekoa	%54,25
Bateragarritasunerako neurriak hartu zituzten gizonen ehunekoa	%54,19
Bateragarritasunerako neurriak hartu zituzten emakumeen ehunekoa	%54,49

Prestakuntzako partaidetza

Prestakuntzan parte hartu duten langileen ehunekoa	%100
Segurtasunaren arloko prestakuntza	70 ordu
Prestakuntza-orduen batezbestekoa lagunekoa	32,42 ordu

Laneko osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistemaren estaldura

	Soldatako langileak
Laneko osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistemak estalitako langileen ehunekoa	%100
Lanarekin lotutako lesio edo osasun-arazoengatik heriotzen kopurua	Bat ere ez
Erregistratu daitezkeen lan-istripuen kopurua eta tasa	2
Erregistratu daitezkeen laneko osasun-arazoetako kasuen kopurua	Bat ere ez
Lanarekin lotutako lesio, heriotza edo gaixotasunengatik galdutako egunen kopurua	244



Eraginpeko erkidegoak

Petronorren uste dugunez, geure ingurunearekin harreman sendoak eratzeko, ezin bestekoa da elkarrizketa etengabe, ireki eta gardena izatea. Hori dela eta, ahalegina egiten dugu, gurekin elkarreraginean dauden giza taldeen premiak eta aurreikuspenak zein diren jakiteko eta erantzuteko. Horrez gain, geure estrategian eta erabakietan hartzen ditugu kontuan. Gure harremanen kudeaketak honako hauxe du oinarri: tokiko eragileekin ezarritako harreman zuzena, erkidegoei emandako etengabeko laguntasuna eta geure ingurunean balio partekatua sortzeko borondatea.

Eraginpeko erkidegoen arloko politikak

Aurreko kapituluan adierazi dugun bezala, Petronorrek bat egiten du Repsol Taldeko Giza Eskubide eta Harremanetako Politikarekin. Izan ere, 2023an eguneratu zen nazioarteko estandar zorrotzen arabera. Politika horretan, honako arlo hauetako konpromisoak ezartzen dira: konponbidea, giza eskubideen errespetua, erkidegoekiko harremana, hornitzaileekin garatutako lankidetzeta eta errepresalien aurka babestutako erreklamazio-mekanismo eskuragarriak. Erkidegoen gaineko eraginaren kudeaketari dagokionez, zehatz-mehatz, politika hori gure erreferentzia-esparrua da.

Halaber, Krisietarako Eskuliburua dugu, eta ingurumenean edo segurtasunean eragina duen edozer gertatzean jartzen da abian. Agiri horretan, jarduteko eta erakunde eskudunei (udalak, 112 eta SOS Deiak) berehala jakinarazteko prozedurak ezartzen dira, geure inguruneko osasuna, segurtasuna eta gardentasuna lehenesten dituen erantzun arin bezain koordinatua bermatzeko.

Eraginpeko erkidegoen printzipioetan oinarritutako ekintzak eta neurriak

2024an, harreman zuzen eta etengabea izan dugu Muskiz, Abanto-Zierbena eta Zierbenako udalekin, baita bertako Ingurumen, Segurtasun, Kultura, Hezkuntza eta Garapen Ekonomikoko zinegotziekin ere. Hori dela eta, aldian-aldian batzartu gara, koordinazio instituzionala sustatu dugu eta etengabe hitz egin dugu ingurune-ko eragile publikoekin. Horrez gain, harremanetarako kanalak ere baditugu eskuragarri (telefonoa, posta elektronikoa eta webgunea), gure eragiketekin lotutako edozein kontsultari edo gorabeherari erantzuteko.

Hezkuntzaren eta gizartearen arloan, erkidegoarekin dugun konpromisoa indartzen duten ekintzak sustatzen ditugu. Ikastetxeekin lan egiten dugu, eta gure instalazioetarako bisitaldiak antolatzen ditugu, STEAM bokazioak bultzatzeko eta Petronorreko aukera profesionalak agerian jartzeko. Era berean, gizartearen, kirolaren, kulturaren eta integrazioaren arloko ehundik gora elkarteri ematen diegu babesa, tokiko garapena bete-betean sustatzeko asmoz. Haien artean, honako hauexek nabarmentzen dira:

SOMORROSTRO, GALLARTA ETA ABANTOKO FUTBOL-TALDEAK		ABANTO-ZIERBENA ETA MUSKIZKO IGERIKETA-TALDEAK	
ABANTO ZIERBENA – MUSKIZKO TXIRRINDULARI-TALDEA		ABANTO-ZIERBENAKO BURDIN JAIA	
MEATZARITZA MUSEOA	ENKARTUR	ZIERBENAKO ARRAUN-TALDEA	
EL CERRO ELKARTEA ETA POBEÑAKO HILARIO CRUZ ELKARTEA		ABANTO-ZIERBENAKO POBALEKO BURDINOLA	
ABANTO-ZIERBENA, MUSKIZ ETA ZIERBENAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK			

Erkidegoekin dugun harremana hurbila eta bi norabidekoa izan dadin, harreman zuzen eta informala (udal-bozeramaileekin egindako hileko bilerak edo erakunde sozialekin egindako topaketak, esaterako) bateratzen dugu ebaluazio profesiona-lekin (bi urtean behin gizartearen iritzia jasotzeko egiten ditugun inkestak). Ne-gozioaren Garapenerako eta Harreman Instituzionaletako Zuzendaritzak harreman-en kudeaketa hori zuzentzen du.

Usteko eraginei emandako arretari eta erantzunari dagokienez, Segurtasun eta In-gurumen Kalitateko Zuzendaritzak Pertsona eta Antolakuntza Zuzendaritzarekin batera bideratzen ditu jasotako erreklamazioak, eta jarraipenerako zein konponke-tarako beharrezkoak diren neurriak koordinatzen ditu talde arduradunekin.

Eraginpeko erkidegoekin lotutako helburuak

Helburua	Azalpena	Aurrerakuntza eta betearazpena
Geure ekimenen eragin soziala neurtzea	Gure ekintzek ingurune-ko erkidegoan duten eragina modu objektiboan ebaluatzea eta, horretarako 2025erako aurreikusitako berariazko azterlana egitea	Harreman Instituzionaletako Arloarekin eta Jasangarrita-sun Arloarekin koordinatu-tako plangintzapeko azterla-na. Aurreikuspenen arabera, 2025eko lehen sei hilekoan egingo da
Tokiko Aholkularitza Kontseilua sortzea	Funtsezkoak diren eragile sozial eta komunitarioekin etengabe hitz egiteko organoa ezartzea	2024an hasitako diseinu-prozesua, 2025ean kontseilua eratze-ko asmoz



Gobernantza

Petronorren, badakigu gobernantza funtsezko zutabea dela, garapen jasangarriaren printzipioekin bat datorren kudeaketa arduratsu eta etikoa bermatzeko.

Administrazio Kontseiluak 13 kide ditu (11 gizon eta 2 emakume), eta 2023ko eraketari eutsi dio. Bertako kideak Repsol Taldetik datoz, ordezkaritza independenteak dira eta Kutxabankeko kideak. Petronorrenzat funtsezkoak diren sektoreetan dute esperientzia; esate baterako, energia, finantza, teknologia eta kudeaketa industrialak. Guzti-guztiak garrantzitsuak dira findegiko jarduerarako eta iragaitza energetikorako.



3. taula. Administrazio Kontseiluko, Auditoria Batzordeko eta Zuzendaritzako kargudunak.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA	AUDITORIA BATZORDEA	ZUZENDARITZA
PRESIDENTEA	PRESIDENTEA	PRESIDENTEA
Emiliano López Atxurra jn.	Juan Andrés Díez de Ulzurrun jn.	Emiliano López Atxurra jn.
KONTSEILARI ORDEZKARIA	BOKALAK	KONTSEILARI ORDEZKARIA
José Gregorio Luque González jn.	Pedro Fernández Frial jn.	José Gregorio Luque González jn.
KONTSEILUKIDEAK	Roberto Velasco Barroetabeña jn.	KONTSEILARI ORDEZKARIAREN ONDOKOA
Juan Abascal Heredero jn.	IDAZKARIA	José Ignacio Zudaire Arana jn.
Ana Beobide Laucirica and.	José Ignacio Zudaire Arana jn.	ZUZENDARI EKONOMIKO FINANTZARIOA
Juan Antonio Carrillo De Albornoz Tejedor jn.		Gonzalo Díez-Heppe González jn.
Juan Andrés Díez de Ulzurrun jn.		PERTSONA ETA ANTOLAKUNTZAKO ZUZENDARIA
Pedro Fernández Frial jn.		Ainhoa Rivera Azcoitia and.
Maximiliano Jacob Urruticoechea jn.		FIDAGARRITASUN, INGENIARITZA ETA ARTAPENEN ZUZENDARIA
Andreu Puñet Balsebre jn.		Óscar Gómez Cruz jn.
Cristina Sanz Mendiola and.		EKOIZPENEN ZUZENDARIA
Roberto Velasco Barroetabeña jn.		Matilde García Echevarría and.
José M ^a Zalbidegoitia Garai jn.		SEGURTASUN, INGURUMEN ETA KALITATEKO ZUZENDARIORDEA
IDAZKARI KONTSEILARIA		Xavier Fava Ibáñez jn.
José Ignacio Zudaire Arana jn.		INGENIARITZAKO ZUZENDARIORDEA
IDAZKARIORDEA		Elías Unzueta Etxeita jn.
Raquel María Ruiz Juárez and.		BERRIKUNTZAKO ZUZENDARIA
		Manuel Núñez Marcos jn.

GENERO-ANIZTASUNA ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAN



Zuzendari nagusiak eta kontseilari ordezkariak EAAk ikuskatzen dituzte. Material moduan antzemandako eta ebaluatutako eraginak, arriskuak eta aukerak kontseiluko bileretan aurkezten dira, erabakiak hartzean oinarri moduan erabili daitezten.

Jokabide etikoa

Jokabide etikoa Repsol Taldeko Etika eta Jokabide Kodearen aplikazioaren bidez kudeatzen da, eta, bertan, kontseilari, zuzendari nahiz enplegatu guztien jarduketa arautzen da, haien laneko kategoria edo lotunea edozein dela ere. Taldeko Etika eta Betearazpen Batzordea organo autonomiaduna da, arau horien ezarpena ikuskatzen du eta ustezko edozein betearazpen-falta bideratzen du Etika eta Betearazpen Kanalaren bitartez. Kanal hori, hain zuzenere, langile eta hirugarren guztientzat dago eskuragarri, isilekoa da eta anonimotua ere bermatzen du, betiere, ezarri beharreko legeriaren arabera hori egiterik badago. Komunikazioak kanpoko enpresa baten bidez kudeatzen dira, eguneko 24 orduetan eta asteko zazpi egunetan dago prest eta tokiko hizkuntzara egokitutako hainbat kanaletan dago eskuragarri (webgunea, ohiko posta eta telefonoa).

2024an, ez dugu ustelkeriaren eta eroskeriaren arloko inolako erregistrorik izan. Arauak betetzeko eredu integrala ezartzen dugu, Repsol Taldearekin partekatzen dugu eta prebentziorako sistema nahiz ikerketa-batzorde independentea daude bertan.

Gure gardentasun-politikaren arabera, Petronorren, ez dugu lobby-ekintzarik egiten. Gure ikuspegia harreman instituzionalean dago oinarrituta, eta elkarriketa gardena zein tokiko garapenaren inguruko konpromisoa ditu ezaugarri. Konpromiso horren barruan, zenbait erakunderekin lan egiten dugu; esate baterako, Petrolioko Operadoreen Elkartea (AOP), hidrogenoaren arloko elkarteak eta tokiko elkarteak. Gainera, dohaintzen politika aktiboa dugu geure ingurune hurbileneko proiektu sozial, hezigarri eta komunitarioetarako.

Hornikuntza-kateko arriskuaren kudeaketa

Hornitzaileekin dugun harremana printzipio etikoetan eta giza eskubideen errespetuan dago oinarrituta. Repsol Taldeko Hornitzaileentzako Etika eta Jokabide Kodea ezartzen dugu, eta, bertan, zenbait arlotako estandarrak zehazten dira; esate baterako, bortxazko lanaren eta haurren lanaren debekua, genero-berdintasuna, askatasun sindikala, eroskeriaren aurkako borroka eta ingurumenaren babesa. Harreman hori indartzeko, hornikuntza-kateko arriskuaren mapa dugu, eta balio-kate osoan sortu daitezkeen arrisku-egoerak antzemateko, ebaluatze eta murrizteko aukera ematen digu. Tresna hori funtsezkoa da jasangarritasunaren arloan ditugun konpromisoekin bat datorren kontratazio arduratsua bermatzeko orduan.

01. *Due diligence* eta kalifikazioa

- Hornitzaileak eta kontratistak erregistratzea.
- Repsoleko Hornitzaileentzako Etika eta Jokabide Kodea berariaz onartzea.
- Hornitzaile guztien ospe ona aztertzea.
- Complianceko arriskuak ebaluatzea (ustelkeriaren aurka, zehapenak eta nazioarteko bahiturak...).
- Alderdi finantzarioak eta enpresarialak aztertzea (egoera finantzarioak, zerga-betebeharrak, aseguruak...).
- Segurtasuneko eta inguruneke kontratazio kritikoetan irizpideak balioztatzea.

02. Erosketa eta kontratazioa

- Repsoleko kontratazio-baldintza orokorrak onartzea. Bertan adierazten denez, indarreko nazioarteko legeria eta estandarrak errespetatu behar dira honako arlo hauetan: giza eskubideak, ustelkeriaren aurka, datuen babesa, segurtasuna, ingurumena, lana eta jasangarritasunaren arloan garrantzitsuak diren beste batzuk.
- Segurtasunaren eta ingurumenaren arloko jarduera kritikoetan zorrotasun handiagoz jokatzeko (eskaintzen haztapena eta betearazpenaren ebaluazioa).

03. Betearazpenaren ebaluazioa

- Kontratuak dirauen bitartean eta amaitzen denean, giza eskubideen, ingurumenaren eta segurtasunaren arloko kudeaketaren betearazpena ebaluatzea.
- Neurri zuzentzailea hartzea, eskatutako estandarrak gainditu ezean edo hartutako konpromisoak bete ezean.
- Betearazpen-maila txikiko edo txarreko ebaluazioaren eragina negoziaketarako osteko prozesuetan eta kontratuzko harremanetan.

Ordaintzeko jarduketei dagokienez, hornitzaileentzako gehieneko epea 60 egunekoa da, abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutakoaren arabera. Hala ere, benetako ordainketaren batez besteko epea 35 egunekoa denez, agerikoa da bidezko merkataritza-harreman arduratsuarekin daukagula konpromisoa.


Jasangarritasunaren betearazpena ezartzea ordainsariatetan

Kontseilari betearazleen ordainsaria Repsol Taldeko Akziodunen Batzar Nagusiak 2023-2026ko epealdirako onartutako Ordainsari Politikaren arabera arautzen da. Politika horretan, ordainsari finkorako elementuak eta urteko nahiz epe luzerako ordainsari aldagarriko sistemak ezartzen dira, baita gutxieneko nahiz gehieneko atalaseak dituzten berariazko metrikak eta betearazpen-eskalak ere. Kontseilarien interesak eta akziodunen interesak bateratzea du helburu, gardentasuna eta epe luzerako balio-sorrera bermatzeko.

Era berean, Repsol Taldeko kideak garenez, Petronorren, jasangarritasunaren arloko etekina sartzen dugu gure pizgarrien sistemetan. Langileen ordainsariaren zati bat helburuekin lotuta dagoenean, banakako xedeen nahiz negozioaren helburuen arabera kalkulatzen da. 2024an, gizartearen, ingurumenaren eta gobernantzaren arloko faktoreekin lotutako helburuak negozio-unitateetako helburuen %20-%45ekoak izan dira. Horrez gain, 2024-2027ko epealdirako Epe Luzerako Pizgarria (ELP) dago abian, eta, bertan, helburuen %40k zerikusi zuzena daukate iragaitza energetikoarekin. Izan ere, zuzendariei eta erakundean bertan funtsezkoak diren beste batzuei ezartzen zaie.


Gobernantzaren eta enpresaren jokabidearen arloan dugun ikuspegi integral horrek gaur egungo jasangarritasun-erronkekin bat datorren kudeaketa etiko eta gardenaren inguruan daukagun konpromisoa indartzen du.

Kontseilari ordezkariaren 2024ko urteko ordainsari aldagarriko helburuen tipologia



■ Konpainiaren betearazpena
■ Eragiketa, hazkuntza eta balioa
■ Deskarbonizazioa eta jasangarritasuna

2024-2027ko Epe Luzerako Pizgarria (ELP)



■ Konpainiaren betearazpena
■ Balioaren sorrera
■ Iragaitza energetikoa